



# ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# Aurkibidea

| ATALA   | ORRIALDEA |
|---|-----------|
| 1) Sarrera. Testuingurua  | 3         |
| 2) 2020 Enpleguaren Euskal Estrategiatik 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikora | 8         |
| 3) Beste estrategia, plan eta arauetako koherentzia                           | 17        |
| 4) Jarduteko printzipioak   | 26        |
| 5) Helburu estrategikoak  | 28        |
| 6) Jarduera esparruak eta jarduera-ildoak                                     | 32        |
| 7) Burutuko diren jarduerak   | 39        |
| 8) Baliabide ekonomikoak  | 112       |
| 9) Aurreikusitako inpaktua  | 114       |
| 10) Planaren gobernantza  | 116       |





# ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 1.- Sarrera. Testuingurua

# Sarrera

Oraingo egoera sozioekonomikoan, eta zenbait urtetan finantza-, industri- eta enplegu-krisia izan ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko adierazle makroekonomikoek susperraldi fasea islatzen dute. Fase hau oraindik hasiberria da eta sendotu behar da euskal gizarte osoraino heldu dadin.

Ilido horretatik, nahitaezkoa da, besteak beste, egitura-arazoei ekitea, hala nola, gazteen eta adin gehiagokoen langabezia. Erabakitasunez eta abileziak ekiten ez bada, kolektibo hauen egoera kroniko bihurtzeko arriskua handia da.

Beste alde batetik, gure gizartea inguru soziolaboral eta ekonomiko konplexu eta aldakorrean murgilduta dago. Horregatik inguru hori ezagutu eta analisi zehatza egitea funtsezkoa da politika publikoetan erabakiak hartzeko enplegu eremuan.

Testuinguru honetan eragin erabakigarria dute faktore hauek esaterako: globalizazio prozesuen ondorioz sistema ekonomikoetan ematen diren aldaketak; ekonomien bilakaera eta joerei buruzko ziurgabetasunak; enpresa-kudeaketa eredu aldaketak; prozesu demografikoak; elektronika, informazio eta komunikazio teknologien eragina; ezagutzaren gizartearen hazkuntza; lan-prozesu eta enpleguen edukien aldaketak, eta baita ere gaitasun tekniko eta zeharkako gaitasun berrien beharra. Hauen eragin sakona dela eta, beharrezkoa da hauei ekin aurretik partekatutako eta diziplina anitzeko hausnarketa sakona egitea, aldi berean etorkizuneko hipotesiak ezartzearen zailtasuna onartuz kasu askotan izaera oso disruptiboa izan dezaketen elementuen aurrean.

Adierazi den bezala, zalantzarik gabe enplegua da hiritarrak gehien kezkatzen dituen arloetako bat gizartearengan duen eragin orokorra dela eta; hau horrela izanda, lehen mailako lehentasun politikoa da.

Enplegu-politikak buruzagitza soziala eskatzen du, instituzioen eskumenekoa eta garrantzi handia hartzen duena, funtsezkoa baita gure herrialdearen lehiakortasun estrategiaren zati gisa eta bere tresnak oinarritzekoak baitira hazkuntza ekonomiko jasangarria lortzeko eta gizarte-egonkortasun eta -kohesiora iristeko. Ikuspegi ekonomiko eta sozial hau estrategia terminoetan adierazi behar da. Estrategia horrek honako zereginak bete behar ditu: gizarte multzoarentzat erreferentzia izan, ekoizpen-sistemaren garapenerako eremurik egokiena ekarri, eta gizarte- eta ekonomia-eragileen topaketa ahalbidetu helburu eta gidalerro komunengatik inguruan politika, gizarte, lan, hezkuntza eta enpresa-ekintzarako.

Helburu horrekin, Euskadiko Hirutariko Elkarrizketa Mahaian gogoeta egin eta estrategia berri bat diseinatzeko beharra adostu zen 2015ean, aurrekoaren indarraldia amaitu eta enplegu-politika aktiboen transferentzia prozesua burutu eta gerorako. Akordio horren ondorioz, 2016eko lehen seihilekoan asmo handiko lan-prozesua garatu zen, partaidetza zabaleko ideian. Prozesu honi esker Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 (aurrerantzean, EEE 2020) zehaztu zen honakoen emaitza zena: azpimarratu beharreko erronka eta alderdi erabakigarriei buruzko adostasun zabala; enplegu gehiago eta hobe sortzeko oinarri diren indarrak eta aukerak; eta aurre egin beharreko ahultasun eta mehatxuak; guzti hori 2020 urtera begira. *(Ikus txosten osoa ondorengo estekan: [Enpleguaren Euskal Estrategia 2020](#)).*



2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak jarduera-mailan zehazten ditu EEE 2020ak xedatutako gidalerroak Eusko Jaurlaritzan enplegua sustatzeko zerbitzu eta programak gauzaten dituzten sail ezberdinentzat tresna izan daitezen, beti enplegua ikuskera zabalean hartuta, lana, hezkuntza eta sustapen ekonomikoei lotutako dimentsioak ere barne hartzen dituena.

Azpimarratu behar da ere Enplegu Plan hau 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaren funtsezko osagaia dela. Programa honek suspertze ekonomikorako dimentsioan Eusko Jaurlaritzak berrikuntza, nazioartekotze, industrializazio eta inbertsio eremuetan garatuko dituen oinarritzko lerro estrategikoak jasotzen ditu ere. Guzti horrek enpleguari lotutako 2 oinarritzko helburu ditu: Euskadin langabezia murriztu %10aren azpitik 2020an eta 2017-2020 epean 20.000 gazteei enplegu aukera ematea. *(Ikus txosten osoa ondorengo estekan: [Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa](#)).*

Beraz, nagusiki dokumentu betearazlea da eta EEE 2020 lantzean garatutako adierazpen estrategikoa zehazten du. Estrategia bezala, partaidetza-prozesu baten bidez landu da hauen ekarpenei esker: gizarte-eragileak, beste instituzioak (Foru Aldundiak eta Udalak) eta enpleguaren arloari bereziki lotutako beste eragileak.



## Aurrekariak. 2014-2016 Enplegu Plana

2014-2016 Enplegu Plana “talka-plan” gisa eratu zen enpleguaren alde Eusko Jaurlaritzak X. Legegintzaldian hartu zuen konpromisoari erantzuna emateko. Konpromiso honen lehenetako zegoen enplegua babestea eta enplegu berria sortzeko baldintza eta pizgarriak eratzea zen. “Erantzun azkar edo talkako” izaera hau itzultzeko nagusiki betearazlea zen plana zehaztu zen neurri zehatz eta errealisten bidez, berehala neurtu eta kuantifikatu daitekeen eragina dutenak.

2014-2016 Enplegu Planaren diseinuak egitura finkoa zuen: 6 programa eragile eta 18 ardatz. Aldi berean, hauek Urteko Ekintza Plan bakoitzeko ekimen edo ekintza kopuru aldakorra jasotzen zuten. Zenbait ekintzek jarraitutasuna edo urte-aniztasuna izan zuten epe osoan zehar, beste batzuk aldiz, 2014-2016 Enplegu Planaren 3 urteetako batean garatu ziren. Horrela, 3 Urteko Ekintza Plan garatu ziren eta hauek 92 ekimen ezberdin barne hartu zituzten (89 ekimen 2014ean, 87 ekimen 2015ean eta 85 ekimen 2016ean).

Helburu kuantitatiboen ikuspuntutik, 2014-2016 Enplegu Planak 32.000 enpleguen sustapena, 134.600 enplegu mantentzeko laguntza eta 23.000 gazteentzako lehenengo lan-esperientzia aukera aurreikusten zituen. Urteko Ekintza Planen bidez abiarazitako ekimenen garapen eta exekuzio mailari esker, aurreikusitakoa baino harago bete da enplegu-sorrera (%116) eta kasik enplegu-mantentzea (%98). Honek esan nahi du 37.146 enplegu sortzeko eta 131.898 enplegu mantentzeko laguntza eman dela. Gazteen lehenengo lan-esperientziari dagokionez, lehenengo balorazioak aurreikusitakoaren %28ko exekuzio emaitzak ematen baditu ere, kontuan hartu behar da Lehen Aukera Programaren ikuspegi eta planteamenduan sortutako aldaketa. Aldaketa honekin praktika-kontratueterako laguntza lan-kontratueterako laguntza bihurtu da eta Urteko Ekintza Planen banakako ebaluazioak ikusi beharko dira exekuzio emaitzen egiazko ikuspegia lortzeko. Hala, laguntza eman da 6.302 gazteek lehenengo lan-esperientzia aukera izan dezaten, aurreikusitako helburuen %65a gutxi gorabehera.

Aurrekontuen ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 775 milioi euro aurreikusi zuen Enplegu Planerako. Horiez gain, aintzakotzat hartu behar da baliabide pribatuen mobilizazio osagarria finantzaketa eta inbertsio pribatuaren eremuetan. Planaren egiazko exekuzioa Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenaren %85ekoa izan da, hots, 661 milioi euro.

Hurrengo orrian Planak lortutako eragina xehatzen da. Xehetasun gehiago ikusteko, “2014-2016 Enplegu Planaren Balantzea”ri dagokion txostena kontsulta daiteke. (*Ikus txosten osoa ondorengo estekan: [2014-2016ko Enplegu Planaren Azken Balantzearen Txostena](#)*).



2014-2016 Enplegu Plana: Planaren eragina

**37.146**  
LANPOSTU  
SUSTATU DIRA

- 10.690** lanpostu sortu dira, eta **5.887** autonomo berri eta mikroenpresa
- 12.560** pertsona kontratatu dira, enpleguratzeko zailtasunak zituztenak, pizgarri ekonomikoen bidez
- 13.896** pertsona ari dira parte hartzen birgaitze-jardueretan

Horietatik **7.888** lanpostu tokiko eta eskualdeko planen bidez sustatu dira

**131.898**  
LANPOSTURI  
EUTSI ZAIE

- 98.871**, **11.907** autonomoren eta ETEen finantzaketa eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzen bidez
- 2.065**, ondorengotza-prozesuei, belaunaldi-erreleboari edo enpresa ekonomia sozialeko bihurtzeari emandako laguntzen bidez
- 30.962**, Enplegu Zentro Bereziatan eta Laneratzeko Enpresetan

LEHEN LAN ESPERIENTZIA **6.302** GAZTERENTZAT





ENPLEGU  
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

## 2- 2020 Enpleguaren Euskal Estrategiatik 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikora



# 2020 Enpleguaren Euskal Estrategiatik 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikora

Sarreran adierazi bezala, Enplegu Plan Estrategikoarekin EEE 2020an ezarritako helburu eta gidalerroak gehiago zehazten dira.

EEE 2020n jasotako diagnostikoa baliozkoa da oraindik ere Euskadin enpleguari dagokion bai egoera-analisi arloan bai prospekzio-lanean, batez ere, gure herrialdean ematen ari den susperraldi ekonomikoaren berrespena eta 2017-2020 eperako aurreikuspen ekonomikoak kontuan hartuta (Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza) eta 2030rako enplegu-proiekzioak (Future Lan, Lanbide).

Lehentasunez, Enplegu Plan honek EEE 2020aren diagnostikoan hautemandako ahultasunei erantzuna eman beharko die:


- Jarduera-tasa baxua.
- Behin-behinekotasun handia eta enplegu finko eta behin-behineko enpleguaren dualtasuna
- Nahi ez den alderdikeria.
- Gazteen langabezi handia.
- Epe luze eta oso luzeko langabeziaren kronifikazioa.
- Desgaitasuna duten pertsonen egoera.
- Euskal Enplegu Zerbitzuak duen defizita laneratzeko laguntza zerbitzu pertsonalizatueta eta enpresentzako harreman eta zerbitzueta.
- Etengabeko ikaskuntzaren defizita kantitate eta kalitate aldetik.

**EAErentzat aurreikusitako egoera makroekonomikoa 2017-2020 (urtetik urterako aldaketa-tasak)**  
Eusko Jaurlaritza, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


|                                   | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|-----------------------------------|------|------|------|------|------|
| <b>BPG</b>                        | 3.1  | 2.7  | 2.3  | 2.2  | 2.2  |
| <b>Azkeneko kontsumoa</b>         | 3.0  | 2.5  | 2.2  | 2.1  | 2.3  |
| Etxeetako kontsumoa               | 3.1  | 2.7  | 2.3  | 2.4  | 2.6  |
| Administrazio Publikoen kontsumoa | 2.2  | 1.7  | 1.8  | 1.3  | 1.2  |
| <b>KEG</b>                        | 3.3  | 3.0  | 3.2  | 2.4  | 2.3  |
| <b>Barne-eskaria</b>              | 3.0  | 2.6  | 2.4  | 2.3  | 2.4  |
| <b>Kanpo-eskariaren ekarpena</b>  | 0.0  | 0.0  | -0.2 | -0.1 | -0.2 |
| <b>BPG nominala</b>               | 3.4  | 3.9  | 4.1  | 4.1  | 4.1  |
| <b>BPG deflaktorea</b>            | 0.3  | 1.2  | 1.8  | 1.8  | 1.9  |
| <b>Enplegua</b>                   | 1.9  | 1.9  | 1.5  | 1.4  | 1.3  |
| <b>Langabezi-tasa</b>             | 13.5 | 11.2 | 10.7 | 10.1 | 9.1  |




**EAEn Lanpostuen Aurreikuspena 2015-2030**  
**Lanpostu Kopurua**  
Future Lan, Lanbide



**EAEn Lanpostuen Aurreikuspena 2015-2030**  
**Sektore ekonomikoek izango duten aldaketa garbia**  
 Future Lan. Lanbide



**EAEn Lanpostuen Aurreikuspena 2015-2030**  
**Lanbide-taldeek izango duten aldaketa garbia**  
 Future Lan. Lanbide



**Enpleguari eta bere egoerari dagozkien adierazle garrantzitsuak genero ikuspegitik** (Enpleguaren Euskal Estrategia 2020. Eskuragarri dauden azken datuak)

| ADIERAZLEA                                  | ADIERAZLEAREN EGOERA  |
|---|---|
| <b>Jarduera-tasa</b>                        | %70,56 emakumeen kasuan, gizonezkoak, ostera, %80,63 (INE, EPA, 2016ko 4. hiruhilekoa)  |
| <b>Langabezia tasa</b>                      | %12,66 emakumeen kasuan, gizonezkoak, ostera, %12,01 (INE, EPA, 2016ko 4. hiruhilekoa)  |
| <b>Aldi baterako kontratazio-tasa</b>       | %26,1 emakumeen kasuan, gizonezkoak, ostera, %20,09 (INE, EPA, 2016ko 4. hiruhilekoa)   |
| <b>Lanaldi partzialeko kontratazio-tasa</b> | %29,5 emakumeen kasuan, gizonezkoak, ostera, %7,2 (INE, EPA, 2016ko 4. hiruhilekoa)   |
| <b>Jarduera sektorea</b>                    | Emakumeak erlatiboki gehiago ordezkatuta daude zerbitzuetan (%89,2 gizonezkoak, ostera, %52,1), eta gizonezkoak ordezkaritza handiena industrian (%36,0a %8,6aren aurrean), eraikuntzan (%9,4a %1,4aren aurrean) eta nekazaritzan (%2,5a %0,7aren aurrean) dute (INE, EPA, 2016ko 4. hiruhilekoa) |
| <b>Ordainsariak</b>                         | Lan egindako ordu bakoitzeko emakumeek 16,99€ jasotzen dute, gizonezkoek, ostera 19,49€ (INE, Soldata-egituraren urteko inkesta, 2015)  |
| <b>Maila profesionala</b>                   | Emakumeen %2,4a zuzendaritza eta kudeaketa postuetan dago, gizonezkoen %5,1aren aurrean (INE, EPA, 2016ko 4. hiruhilekoa)   |



## Enpleguaren Euskal Estrategia 2020: Euskal lan-merkatua eta hau gehien eragiten duten sistemen barne-mailaren egungo egoerari buruzko ondorioak

| EGOERA POSITIBOA   | TARTEKO EGOERA  | EGOERA NEGATIBOA  |
|--|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>■ Gure industria-sektorearen sendotasuna.</li><li>■ Ekonomia sustatzeko politika sendoa eta denboran irauten duena.</li><li>■ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen sendotasuna.</li><li>■ Gure lanbide-prestakuntzaren kalitatea.</li><li>■ Langabeziaren ondorioak hein handi batean arintzen dituen gizarte-babeserako sistema propioa izatea.</li><li>■ Ekonomia sozialaren garrantzia gure ekoizpen-egituran.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>■ Langabeziaren kopuru orokorrak.</li><li>■ Gure biztanleria aktiboaren kualifikazioa.</li><li>■ Gure hezkuntza-sistema gure ekoizpen-sistemaren errealitatearen arabera egokitzea.</li><li>■ Inbertsio-ahalegina I+G+Bn.</li><li>■ Desberdintasunak aukera-berdintasunean emakumeen eta gizonen enpleguari dagokionez.</li><li>■ Ekintzaitzarako laguntza-maila eta zerbitzuak.</li><li>■ Lan-harremanen giroa.</li><li>■ Eskumen-maila.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>■ Jarduera-tasa txikia.</li><li>■ Behin-behinekotasun handia eta enplegu finkoaren zein aldi baterako enpleguaren arteko dualtasun-maila handia.</li><li>■ Nahi ez den partzialtasuna.</li><li>■ Langabezia-tasa altua gazteen artean.</li><li>■ Epe luzeko eta oso luzeko langabeziaren kronifikazioa.</li><li>■ Desgaitasuna duten pertsonen egoera.</li><li>■ Laneratzen laguntzeko banakako zerbitzuetan eta enpresekiko harremanetan eta zerbitzuetan gabeziak dituen Euskal Enplegu Zerbitzua.</li><li>■ Gabeziak etengabeko ikaskuntzaren kopuruan eta kalitatean.</li></ul> |




## Enpleguaren Euskal Estrategia 2020: Prospekzio-lan elementuei dagozkien ondorioak

| AUKERA ARGIA   | ZALANTZAZKO ELEMENTUA  | ARRISKU EDO MEHATXU GARBIA  |
|--|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>■ Belaunaldi-aldaketagatiko lan-aukerak.</li><li>■ Emakumeen eta adinez nagusiagoen lan-ekarpenaren ahalmena erabat baliatzea.</li><li>■ Pertsonen elkarlana eta kudeaketa aurreratua enpresaren barruan.</li><li>■ Aukerak sor ditzaketen sektore eta arloak garatzea.</li><li>■ Inbertsio etekintsuak erakartzea.</li><li>■ Hezkuntza/prestakuntza-sistemaren eta enplegu-sistemaren arteko lotura handiagoa, ekoizpen-sareak dituen beharrei aurrea hartzeko eta hobeto bideratzeko behar horietara.</li><li>■ Talentua erakartzea.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>■ Ekonomiaren susperraldiaren erritmoa.</li><li>■ Laugarren industria-iraultzaren eta ekonomia digitalaren sorreraren ondorioak eta ekonomiaren digitalizazioa.</li><li>■ Lan egiteko beste modu batzuk.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>■ Demografia-defizita eta herritarren zahartzea.</li><li>■ Gorabidean diren herrialdeen lehia handiagoa.</li><li>■ Enplegagarritasuna murriztea eta kualifikazio apalagoko pertsonen langabezia-egoera kroniko bihurtzea.</li></ul> |



EEE 2020k 41 egitura-gidalerro jasotzen ditu 6 ardatzetan, bakoitza Diagnostikoan zehaztutako erronka bati dagokiolarik. Gidalerroak orientazio estrategiko gisa ulertzen dira erronkei erantzun eta 2020rako Euskadiko enplegurako zehaztutako helburuak lortzeko. Hala, lan-proposamenak adierazten dituzte lehenago adierazitako erronka eta helburuetan aurrera egiteko. Estrategian gailena da aurrera egitea gidalerroek seinalatutako ildoan, Estrategiaren aplikazio-esparruaren barne une bakoitzean erabiltzea erabakitzen diren tresnak alde batera utzita; hauek beste plangintza-tresnen bitartez zehaztu behar dira, hala nola, Enplegu plan hau.

### 2020ko EEEen jarduera-ardatzak



| ARDATZA  | LORTU NAHI DIREN HELBURUAK   |
|--|--|
| <b>A) AKTIBAZIOA</b>   | Egungo jarduera-tasa baxua areagotzea eta enpresen eskaerari aurre egiteko biztanle aktibo nahikoa eta gure Ongizate Estatuari eusteko pertsona landun nahikoa ez izateko arriskua arintzea. |
| <b>B) KUALIFIKAZIOA ETA GAITASUNAK</b>   | Ekoizpen-sarearen benetako beharretara egokitutako gaitasunak dituzten pertsonak lortzea, ezagutza teknikoak, zein gaitasun sozialak, hizkuntzak eta beste kontuan hartuz.                   |
| <b>C) AUKERAK SORTZEA</b>  | Aukerak sortzea ekonomiaren garapenean oinarrituz, eta erabat aprobetxatzea gure ekonomiak enplegua sortzeko duen ahalmena.  |
| <b>D) AUKERA-BERDINTASUNA</b>  | Kolektibo eta talde guztiei aukera berak eskainiko dizkien lan-merkatu inklusibo bat lortzea.  |
| <b>E) KALITATEZKO ENPLEGUA</b>   | Kalitate handiagoa duen enplegua eskainiko duen lan-merkatu bat lortzea, adostasunean eta lankidetzan eraikitako lan-harreman batzuetan oinarrituz.  |
| <b>F) BALIOZKO ZERBITZUAK ESKAITZEN DITUEN EUSKAL ENPLEGU SISTEMA ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA</b> | Gaur egungo Euskal Enplegu Zerbitzua hobetzea, enpleguan eragiten dituen politika guztiez osatua egon dadin eta pertsonen eta enpresen beharretara bideratutako zerbitzuak eskaini ditzan.   |



Lehenago esan bezala, EEE 2020en gaien zabaltasuna bera dela eta beharrezkoa da bere hedapena plangintza-tresna ezberdinen bidez egitea. Tresna hauen artean Enplegu Plana garrantzitsuena da, baina ez bakarra. 2017ko martxoan onetsi zen 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programa osatzen duten gainontzeko planak EEE 2020k ezarritako gidalerroen aplikazio eraginkorra dira ere; baita hamaikagarren legegintzaldian garatuko diren beste plangintza-tresna batzuk ere, hala nola, ekintzailtza, unibertsitate, lanbide-heziketa eta emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasunerako planak. Hurrengo koadroan EEE 2020 eta 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaren arteko harremanak adierazten dira.

| ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2020 (EEE 2020)   |  |   |  |                           |                              |  |
|---|--|---|--|---------------------------|------------------------------|--|
| ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKORAKO ESPARRU-PROGRAMA 2017-2020                                     | A. Aktibazioa  | B. Kualifikazioa eta gaitasunak                                 | C. Aukerak sortzea   | D. Aukera-berdintasuna    | E. Kalitatezko enplegua      | F) Baliozko zerbitzuak eskaintzen dituen Euskal enplegu-sistema eraginkor eta efizientea |
| <b>Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020</b>  | Biztanle aktibo gehiago eta enplegua gehiago hartzea garapen pertsonalerako eta gizarteratzerako tresna gisa | Gaitasunak epe laburreko eta luzerako enplegu-berme gisa garatu | Enplegu-aukerak tokiko garapenari, ekintzailtzari eta arlo zehatzei (birgaitzeari, adibidez) lotuak    | Lan-merkatu inklusiboagoa | Enplegu hobea (kualitatiboa) | Pertsonei eta enpresei zerbitzu hobea eman   |
| <b>2017-2020 Industrializazio Plana «Basque Industry 4.0»</b>                                       |  | «Industria berria»ren beharrei lotutako gaitasunak              | Garapen industrialari lotutako enplegu-aukerak   |                           |                              |  |
| <b>Berrikuntza Plana «ZTBP EUSKADI 2020. Espezializazio Adimentsurako Estrategia (RIS3)»</b>        |  | I+G+b eta ekonomia digitalari lotutako gaitasunak               | Enpresen sare berritzaileagoa izan eta handik sortutako enplegu-aukerak                                |                           |                              |  |
| <b>Nazioartekotzeko Plana «2020 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Basque Country Estrategia»</b> |  | Euskal enpresen nazioartekotzeari lotutako gaitasunak           | Nazioarteko merkatura are gehiago zabaldu den enpresen sare izan, eta handik sortutako enplegu-aukerak |                           |                              |  |
| <b>Inbertsio Publikorako Programa</b>   |  |   | Inbertsio publikoaren eragin bultzatzailearen ondorioz sortutako enplegu-aukerak                       |                           |                              |  |







ENPLEGU  
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

### 3- Beste estrategia, plan eta arauetako koherentzia

# Koherentzia Nazio Batuetako Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH)

Nazio Batuetako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) Nazio Batuetako Estatu Kideek adostutako akordioaren emaitza dira. Helburu hauek 2030 urtean lortu beharreko 17 Garapen Jasangarriko Helburu eta 169 xede jasotzen dituzte.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak honako Garapen Jasangarriko helburu eta xedeekin zuzeneko lotura dute:

*8. helburua Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatu.*

- *8.3 xedea. Garapenera bideratutako politikak sustatu, honako alderdi hauei babesa emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatu, baita finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.*
- *8.5 xedea. Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortu emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortu.*
- *8.6 xedea. Hemendik 2020ra, era nabarmenean murriztu enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.*
- *8.8 xedea. Lan-eskubideak babestu eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatu langile guztientzat, migratzaileak barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.*
- *8.9 xedea. Turismo jasangarria sustatzera bideratutako politikak egin eta martxan jarri, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.*

*4. helburua Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatu eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatu.*

*5. helburua Emakume eta gizonen berdintasuna lortu eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldundu.*

- *5.c. xedea Politika zuzenak eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onetsi eta indartu, emakume eta neskato guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan.*



# Koherentzia europar esparruko politika publikoekin

EAEko enplegu-politikak euskal lan-merkatuaren errealitate eta berezitasunei ekiteko eratu behar dira koherente izanik Euskadi integratzen den inguru zabalagoarentzako eratzen diren planteamendu orokorrekin. Ildo honetan, Euskadi europar testuinguruan sartzen delarik ezinbestekoa da Europar Batasuneko instituzioek enpleguaren esparruan hartzen dituzten analisi, proposamen eta tresnak aintzat hartzea.

## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

Europa 2020 Estrategiak erantzuna ematen die krisiak europar ekonomian agerian jarri dituen egitura-ahultasunei. Ekonomia honek epe luzean hiru erronkei aurre egin behar die: mundializazioa, baliabideenganako presioa eta zahartzea.


Estrategia honen adierazpena jada 2010ean burutu zen. 2000ko martxoan eratu zen “Lisboako Estrategia” eta 2005ean egin zen horren berrikuspenari dagokionez emaitza oso mugatuak lortu ziren eta ondorioz Europar Batzordeak “Europa 2020 Estrategia” berria hartu zuen. Erreferentzia marko ekonomikoa proposatzen da Europar Batasuneko instituzioentzat, honako lehentasunak dituena: hazkuntza adimentsua, jasangarria eta integratzailea, hazkunde horretan oinarrituta gaur egungo krisi ekonomiko eta langabezia egoera birzuzenduz, horrela Lisboako Estrategia eratzean ohartutako urritasunak zuzentzen saiatzeko.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak, 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaren barne izanik, lehentasun horiek mantentzen ditu. Zentzu berean, Europa 2020ren orientazio estrategikoak ere jarraitzen ditu enpleguari dagokionez, hala nola, “Gazteak mugimenduan”, “Industria-politika mundializazio aroarentzat” eta “Agenda kualifikazio berrientzat eta enpleguarentzat”.

## ENPLEGUAREN EUROPAR ESTRATEGIA

Bere Hazkuntzarako estrategian jasotako helburuei ekiteko Europar instituzioek beren aldetik, berezko dokumentu estrategikoak landu dituzte. Hala, langabezia-tasa altuak eta dagoen lan-eskaintzaren hobekuntzari aurre egiteko Batasuneko politikak zehazteko asmoz Enpleguaren Europar Estrategia eratzen da.

Enpleguaren Europar Estrategiak ez ditu Batasuneko Estatu kideen estatuaren, eskualdearen edo tokiaren eskumenak mugatzen, baizik eta jokalaria guztientzat (sektorialak, lurraldekoak, publikoak eta pribatuak) jarraibideak proposatu edo ezartzen ditu, erreferentzia izan nahi duelarik lehentasun eta helburu nagusiei dagokienez.



Europar Batzordeak proposatutako Enplegurako Gidalerroen bidez antolatzen da Estrategia. Gidalerro hauek politika ekonomikoentzako Gidalerro orokorren barne sartzen dira, makro eta mikroekonomia esparruak barne hartzen dituztelarik. Gidalerro gehienak lan-merkatuaren neurri aktibo, pasibo eta estrukturalen konbinazioak dira eta oinarria izan nahi dute europar enplegu-politiken diseinu eta exekuziorako maila guztietan: estatu, eskualde eta toki-mailan. Zehazki, hamar gidalerro integratu dago. Hauetako azkeneko lauek zuzenean Enpleguaren Europar Estrategiarekin lotuta daude:

«7. Emakume eta gizonen parte-hartzea lan-merkatuan areagotu, langabezi estrukturala murriztu eta kalitatezko enplegua sustatu.

8. Biztanleria aktibo kualifikatua lortu, lan-merkatuaren beharrei erantzuten diena, eta etengabeko ikaskuntza bultzatu.

9. Hezkuntza eta prestakuntza-sistemen kalitate eta emaitzak hobetu maila guztietan eta goi-mailako irakaskuntzan edo baliokidean parte-hartzea areagotu.

10. Gizarteratzea sustatu eta pobreziaaren aurka borroka egin.»

Europa 2020 Estrategia eta bere gidalerro integratuak onetsi zirenetik asko izan dira EBk zehaztutako politika publikoak, ekimenak, Europar Batasunak landutako gomendioak, baita ere analisi, berrikuntza eta finantzaketa lehenetsuzko arloak, Estatu Kideek aurre egin beharreko enplegu arazoei erantzuna eman nahi dietenak. Ondoren, garrantzitsuenetako zenbait adierazten dira:

- 2013ko apirilak 22ko Kontseiluaren gomendia, Gazte Bermea ezartzeari buruzkoa (2013/C 120/01).
- 2016ko otsailak 15ko Kontseiluaren gomendia, luzaroko langabeak laneratzeari buruzkoa (2016/C 67/01).
- 2016ko abenduak 19ko Kontseiluaren gomendia, gaitasunen hobekuntzarako bideei buruzkoa: Helduentzako aukera berriak (2016/C 484/01).
- Batzordearen Komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari. COM (2016) 381 final. Europarako Gaitasun Agenda Berria. Elkarrekin lan egin giza-kapitala, enplegarritasuna eta lehiakortasuna indartzeko.



# Euskal eremuko estrategia eta planak

## EUSKADI 2020. XI. LEGEGINTZALDIAREN GOBERNU-PROGRAMA (2016-2020)

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren onespena XI. Legegintzaldiaren (2016-2020) Gobernu-Programaren 175 konpromisoetan berariaz jasotzen da, 1. eta 2. konpromisoari zuzenean erantzuna emanez. “Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programa onetsi” eta “2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa onetsi”.

“Enplegua, Susperraldia eta Jasangarritasuna” I. Zutabearen barne dagoen konpromiso honetaz gain, Plan honetan jasotako neurriak honako konpromisoak betetzeko aurrera egiteko balio dute:

- 3. konpromisoa. Lanbide berri eta modernizatu.
- 4. konpromisoa. Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu.
- 5. konpromisoa. Gazteen laneratzea sustatu.
- 6. konpromisoa. Elkarrizketa soziala, langileek enpresetan duten parte-hartzea eta langile autonomoen arteko lankidetzak sustatu.
- 7. konpromisoa. Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu.
- 9. konpromisoa. Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua.
- 10. konpromisoa. Lanean osasuna eta segurtasuna, eta berdintasuna sustatu.
- 11. konpromisoa. Lan-iruzurrari aurre egin. Lan-ikuskaritza.

5. konpromisoari dagokionez, Planak berariazko atal bat aurreikusten du “3. Esparru operatiboa. Gazteen Enpleguaren Sustapena» arloan zehazten dena. Arlo honek 9 jarduera-ildo jasotzen ditu gazteen laneratzea sustatzeko besteak beste, honako hauek aurreikusten direlarik: kontratazio konpromisoa duten prestakuntza dualeko programak abiaraztea, hezkuntza mundutik lan mundura igarotzeko bekak, gazteen itzulerarako programak eta kultura ekintzailearen sustapena.

Herrialdeko helburuen mailan, Plan honek honako helburuak ditu:

- 1. helburua Langabeziaren tasa %10 baino txikiagoa izatea.
- 2. helburua Lehenengo lan-esperientzia 20.000 gazteentzat.

## HERRIAREN 15 HELBURU

### Euskadi 2020. XI. Legegintzaldiaren Gobernu-Programa (2016-2020)

1. Langabeziaren tasa %10 baino txikiagoa izatea

2. Lehenengo lan-esperientzia 20.000 gazteentzat

3. BPG industrialia %25 izan dadin lortu, eta EBko biztanleko BPG per capitaren %125era iritsi

4. Berrikuntzako 100 proiektu estrategiko

5. Berotegi-efektuko gasaren isurpena %20 murriztu

6. Defizit publikoaren Europako konpromisoa bete

7. Gardentasunaren nazioarteko indizeetan lider izan

8. Bizi osasuntsuaren itxaropena urtebete igo

9. Eskola uztearen tasa %8tik beherakoa izatea

10. 25 urtetik beherakoen %75 euskal hiztun izatea

11. Pobreziaren tasa %20 murriztu

12. Jaiotza-tasa igo. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak igo

13. Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jarri emakume eta gizonen berdintasunean

14. ETA behin betiko armagabetu eta desegin

15. Estatutu politiko berria



Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren esparruaren barruan, identifikatutako zenbait arlo XI. Legegintzaldian zehar Gobernuaren ekintza-antolamenduaren antzeko prozesu baten barne daude edo planifikatuko dira.

Plan honek planifikatzen duen epean zehar indarraldia luzatzen duten planak daude eta Eusko Jaurlaritzak beste batzuk onetsiko ditu. Hori oinarritzat hartuta, EEE 2020 eta 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaz gain, honako estrategia eta plan garrantzitsuak identifikatzen dira horiek lerrokatzeko asmoz eta horrela garatuko diren ekimenen lorpena optimizatzeko. Guzti honen oinarrian helburu estrategiko partekatuak daude, XI. Legegintzaldiaren Eusko Jaurlaritzak bere Gobernu-Programan identifikatu dituenak, eta honako arloen inguruan taldekatu daitezkeenak:

## GARAPEN EKONOMIKOA ENPLEGUA SORTZEKO MOTORE GISA

- **2017-2020 Industrializazio Plana:** honen helburua euskal lehiakortasunaren indartzean sakontzen jarraitzea da, honakoen bidez: enpresa-proiektu bideragarrien berregituratze eta biziraupena laguntzeko neurriak; industri-sarearen eskura dauden finantzaketa-iturri eta tresnen dibertsifikazioa; eta laguntza esparru bat ezartzea, bere gaitasun eta beharrei egokituia, berrikuntza teknologikoa eta aukera-sektore berrienganako dibertsifikazioa pizten dituen.
- **Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020-Estrategia Basque Country.** Suspertze Ekonomikorako Estrategiaren beste atal bat da eta helburuak hauek ditu: Euskadi bere osotasunean nazioartekotu, hau da, Euskadiren irekiera munduan eta Euskadiren parte-hartze aktiboa globalizazio prozesuan lagundu. Honetan kanpo ekintza instituzio-agenda edo gobernuaren ekintzen erreferente gisa ulertzen da, halaber, gizarte zibila berarena, honako arlo hauetan: enpresa, hezkuntza, osasuna, kultura, gizartea, ingurumena, .... euskal enpresa-sarearen nazioartekotasunak garrantzi berezia duelarik.
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2020.** Honen xedea ongizatea, hazkunde ekonomiko jasangarria eta enplegua hobetzea da euskal gizartean espezializazio adimentsuan oinarritutako ikerketa- eta berrikuntza-politika baten bidez eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Sistemaren eraginkortasuna hobetuz.
- **Espezializazio Adimentsurako Euskal Estrategia (RIS3) 2020.** Honek fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak zehazten ditu lehentasunezko alor gisa 2014-2020 eperako, lurraldearekin lotutako beste 4 aukera txokoetaz gain.
- **Euskadiko Ekintzaitzarako Institutioen Arteko Plana 2020.** Honen helburua ekintzaitzeta era integralean laguntzea da gero eta proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta jasangarri gehiago sor eta haz daitezen, bereziki etorkizuneko sektoreetan, Euskadin eraldaketa ekonomiko eta sozialeko etapa berri bat sortuz.
- **2017-2020 Etxebizitza zaharberritzeko bultzatzeko programa.** Batez ere eraikuntza eta etxebizitzaren irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa mantentzera eta hobetzerazuzenduta dago eta horretarako zaharberritze-lanak sustatzen ditu; eta **etorkizuneko 2018-2020 Etxebizitza Bideratzeko Plana.**



- **2017-2020 Turismo, Merkataritza eta Kontsumorako Plan Estrategikoa** (garatzen ari da). Honen helburua Euskadiko jarduera turistikoen bikaintasun eta jasangarritasuna sustatzea da eta horretarako esperientzia-turismoa eta “Euskadi Basque Country” herrialdeko marka-turistikoaren finkapena.
- **2015-2010 Euskadiko Landa Garapeneko Programa**. Honen helburua aktibazio ekonomikoan eta enpleguaren sorreran zuzeneko eragina duten neurriei lehenetasuna ematea da. Horretarako finantza-tresnak antolatzea aurreikusten du merkatu finantzariorako sarrera errazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa zonaldeen multzoaren garapen jasangarria bermatzen du, gazteei arreta berezia emanez.

## IKASKUNTZA ETA GAIKUNTZA PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERAKO ETA LAN-MERKATUAREN LEHIAKORTASUNERAKO FAKTORE GISA

- **2018-2021 Lanbide Heziketako Euskal Plana**. Lanbide-heziketa funtsezkoa da herrialde baten lehiakortasunean; izan ere, pertsonen gaitasunak eta ezagutzak hobetuz, giza kapitala eta haren enplegagarritasuna indartzea du xede. Horretarako, lanbide-profilak eta profil horiek lortzeko prestakuntza ekoizpen-sektoreen benetako eskarira ahalik eta gehien egokitu behar dira. Hau dela eta, V. Planak 2014-2016rako Lanbide Heziketako Euskal Planean sakonduko da. Plan honek Lanbide-heziketa eredu konbinatu berria sustatu zuen, hiru osagai zituena: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua eta ekintzailtza aktiboa. Hiru hauei euskal hezkuntza-lanbidearen nazioartekotzeko arloa gehitzen zaie.
- **2015-2018 Unibertsitate-Plana**. Dituen lau helburu estrategikoen artean bi azpimarra daitezke enpleguarekin duten loturagatik: euskal gizartearen goi-mailako heziketa premiei erantzuna eman eredu eta metodologia berritzaileen bidez, ekintzailtza eta laneratzea sustatuz eta gazteak gaituz oso nazioarteko eta informazio-teknologiek zehaztutako inguruetan lan egin dezaten; euskal gizartearen erronka ekonomiko eta sozialetan era erabakigarrian lagundu ezagutza eskualdatu eta profesionalen etengabeko prestakuntzaren bitartez, beste lerro estrategikoen artean hau jarraituz: goi-mailako heziketa eskaintzaren dibertsifikazioa “lanbide-heziketarantz”.
- **Euskadiko 2020ko Agenda Digitala**. Honek pertsonentzako gaikuntza lerroak aurreikusten ditu enpresek geroz eta gehiago eskatzen dituzten gaitasun digitaletan.



## PERTSONAK LAGUNTZEN DITUZTEN ETA ENPLEGUAREN SARRERA, MENTENTZE ETA KALITATEAN ERAGINA DUTEN BESTE EUSKAL POLITIKAK

- **2017-2021 Gizarteratzeko Euskal Plana.** Era koordinatu eta orokorrean administrazio eskudunen jarduera gidatzeko esku-hartze eta jarduera lerro eta gidalerroak jasotzen ditu bazterkeria egoeran dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko. Plan honek gizarte-bazterkeriaren prebentzio eta tratamendurako erronka eta lehentasunak zehazten ditu eta EAEn gizarteratze eta laneratze prozesuak erraztu eta ordenatzeko egin beharko lirakekeen aldaketa eta jardueri heltzen die.
- **Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020.** Gizarte zerbitzu eta enpleguaren arteko loturaren erroa hau da: gizarte zerbitzuek pertsona langile zein langabeengan duten eragina, horien oinarritzko premiak betetzen dituzten zerbitzuak emanez.
- **Immigrazioarako Euskal Estrategia** Estrategia honek kolektiboaren lanerako, hezkuntzarako eta ikasketa-arrakastarako sarrera sustatu nahi du integratzeko bide gisa, eta Euskadin dauden giza-baliabideak mobilizatu, enplegarritasunerako dauden eragozpen eta mugak (legalak, hizkuntzari lotuak, prestakuntzakoak, ...) ezabatzen laguntzen dutenak. Ildo honetan, prozesu pertsonalizatuak azpimarratu behar dira pertsona immigranteen lan-aktibazioarako orientazioa, enplegua sustatzea eta laneko bitartekotzaren bidez.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana 2014-2017 eta VII. Plana 2018-2021.** Enplegu arloan, berdintasunerako planek ekintzak sustatzen dituzte emakumezkoentzat dauden generoen arteko ezberdintasunak murrizteko honako arloetan: laneratzea eta biztanleria aktiboaren tasa, enpleguaren kalitatea, uztartzearen zailtasunak, soldata ezberdintasunak eta beste lan-baldintza ezberdintasunak, hala nola, behin-behinekotasuna eta nahi ez diren lanaldiak.
- **Familia eta Haurtzaroan Inbertitzeko Estrategia.** Familia-politikak bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoaren arteko uztartzea eta gurasotasun erantzunkidea sustatu eta erraz dezakeen heinean eragina du enpleguarengan. Ondorioz, eragina du ere emakumeak laneratu eta lanean jarraitzea ez eragotziz eta lagunduz, eta baita bilakaera eta hobekuntza profesionala ere lagunduz.
- **2017-2020 IV. Gazte Planak** hezkuntzatik lanerako igarotzea, gazteen enplegua eta emantzipazio-aukerak lehenetsiko ditu.
- **2015-2020 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia.** Honen helburua lan-ingurune osasungarria laguntzea da.





# Arau-testuingurua Euskal Autonomia Erkidegoan

Enplegu Plana diseinatu eta eratzeko arau-esparrua kontuan hartu behar da. Hala, Plan hau ez bada Eusko Jaurlaritzak landu eta onetsi beharreko lege- edo araudi-agindua ere, aproposa da Planaren garapenean eragin garrantzitsua izan dezaketen legegintza proiektuak aintzat hartzea, berritzaile diren heinean:

## EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAREN LEGE-PROIEKTUA

Arauketa honen xede nagusia EAEko enplegu-politikaren helburu eta printzipio gidariak ezartzea da. Politika hauen azkeneko xedea da enplegu-maila, enplegu-egonkortasuna eta kalitatea areagotzea, eta eta pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea hobetzea, oro har, enplegu-politika aktiboak planifikatu eta garatzeko egitura eta tresnak arautzea.

## XI. LEGEGINTZALDIAREN (2016-2020) LEGEGINTZA-PROGRAMAN JASOTAKO BESTE LEGE-PROIEKTUAK

Hauek dira enpleguaren arloan eragina izan dezaketen XI. Legegintzaldiaren (2016-2020) Legegintza-Programan Jasotako beste lege-proiektuak:

- Euskal Enplegu Publikoaren lege-proiektua.
- Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko legea aldaratzeko proiektua.
- Euskal Sektore Publikoan Antolamendu eta Funtzionamenduaren lege-proiektua.
- Lanbide-hezkuntzaren lege-proiektua.
- Euskal Hezkuntzaren lege-proiektua.





## ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

## 4- Jarduteko printzipioak

# Jarduteko printzipioak

Plan honen printzipio orientatzaileak EEE 2020an jaso zirenen berdinak dira:

| PRINTZPIOA                           | PRINTZPIOARI DATXEZKION ELEMENTUAK  |
|--------------------------------------|---|
| <b>1) EKITATEA</b>                   | <p>Funtsezkoa da aukerak pertsona guztiengana iristea, bereziki aukera horietatik urrunen dauden kolektiboengana.</p> <p>Gainera, genero-ekitate Estrategiaren zeharkako printzipio gisa ezarri da. Honek esan nahi du genero-ikuspegia bai diseinuan beran eta garatuko diren ekintzen plangintzan bai eta hauen jarraipen eta ebaluazioan jaso beharko direla. Horrez gain, beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak jaso beharko dira egon daitezkeen desorekak zuzentzeko gure lan-merkatuan, enpleguaren kantitate edota kalitateari dagokienez.</p> |
| <b>2) EFIZIENTZIA</b>                | <p>Gizarte-beharrak asko dira eta hala jarraituko dute izaten, eta aurrekontu publikoak mugatuak izango dira ezinbestean. Proposatzen diren ekintzak arrakastatsuak izatea lortu behar da, bai eta ekintza horiek kostu onargarri eta jasangarriekin egitea ere.</p>  |
| <b>3) LURRALDE-OREKA</b>             | <p>Euskadiko eskualde guztietan antzeko aukerak dituen lan-merkatu bat lortzeko lan egin behar da, enplegu-aukeren zein horiekin lotutako zerbitzuak lortzearen ikuspegitik (hezkuntza, prestakuntza, orientazioa...).</p>  |
| <b>4) PARTAIDETZA ETA ADOSTASUNA</b> | <p>Ezinbestekoa da gure lan-merkatuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten eragile guztiek parte hartzea eta enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa sortzeko helburua izatea. Horrez gain, instituzioak eta gizartea ados jartzea sustatu behar dugu, helburu horiek lortzearekin bat etorritik.</p>  |
| <b>5) GARDENTASUNA</b>               | <p>“Kontuak ematearen” garaian bizi gara. Gizartearen eskura jarri behar dugu enpleguaren arloan egiten den guztiari buruzko informazioa: nork egiten duen, zein emaitza lortzen diren, zein kosturekin...</p>  |





## ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

## 5- Helburu estrategikoak

## Helburu estrategikoak

2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programarekin, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020rekin eta dokumentu honetan jasotako beste programa- eta diagnostiko-alderdiekin koherentzian, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak honako helburuak proposatzen ditu:

Kalitatezko enplegua sustatu, egoera ahulagoan dauden pertsonen eta euskal gazteen garrantzi berezia emanda.

Laneratzea sustatu tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez.

Enplegurako prestakuntza sustatu, langabeen eta landunen artean; horri lotuta, irizpide nagusitzat hartu behar da jakintza-ekonomian gaitasunak direla enplegu-bermerik handiena.

Ekintzailtza era integroan sustatu, gure gizartean duen garrantzia estrategikoari balioa emanez.

Honako hauek baliatu: garapen turistiko jasagarriak enplegua sortzeko duen gaitasuna, tokiko merkataritzaren finkapena, sektore primarioaren modernizazioa eta gizarte-ekonomiaren eta sektore publikoaren garapena.

Etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko Renove programen aktibazioa lortu, enplegua sortzeko jardura trinkoak direla egiaztatuta.

Enpresarekin konektatuago dagoen hezkuntza-sistema batean sakontzen jarraitu, bai gaitasunak lortzeko terminoetan, bai hezkuntza-etapatik etapa profesionalera igarotzeko erraztasunean.

Beharrezko xedapen eta baldintzak zaindu eta eratu enpleguaren kalitatea hobetzeko, egonkortasun, segurtate eta karrera profesional motibatzaile eta gogobetegarrien garapen aukerei dagokienez euskal langileentzako, halaber, langileek kudeaketa, mozkin eta jabetasunean parte-hartzeko aukera errazteko.

Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren balio ekarpena hobetu euskal enplegu-politikaren tresna operatibo gisa, pertsona eta enpresentzako zerbitzu integratuagoak eskaini ditzen, "ibilbide" kontzeptua bereziki azpimarratuz.

Zeharkako eran, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak arreta berezia ematen dio emakumeek jardura ekonomiko eta laboralean baldintza berdintasunakin osotara parte-har dezaten indartzen duten neurriei.



Aurreko 2014-2016 Enplegu Planaren aldera berrikuntza nagusiena hau da: enpleguaren kalitatea eta Euskal Enplegu-sistemaren hobekuntzari lotutako helburuak gehitzea; helburu hauek enplegua sortzeko mantentzen diren xedeen (“enplegu gehiago”) osagarri dira.

Helburu berri hauek euskal lan-merkatuaren testuinguru berriari erantzuna ematen diote, enplegua sortzeko etorkizun mesedegarriarekin, baina baita arrisku bikoitzarekin ere:

- Enplegua sortzea ez dadin aldi berean enpleguaren kalitatearen suspertzearekin bat etorri, batez ere behin-behinekotasun eta eskatu ez den partzialtasun tasatan.
- Enplegua sortzeak ez ditzan egiazko aukerak ekarri gaur egun enplegarritasun gutxiagoko pertsonentzat, nagusiki beren kualifikazio eskasak edo zaharkituak izateagatik, haien prestakuntza gehiegizko trebetasuna jaso izanaren problema gutxietsi gabe. Aukera hauek kolektibo horiei heltzean lortzeko beharrezkoa da, alde batetik, pizgarrien eskaintza azpimarratzea langabekoen artean baldintza mesedegarriagoetan egon daitezen; beste aldetik, Euskal Enplegu-sistema baliozko zerbitzuak eskaintzeko gai izan dadin, gure ekoizpen-sarearen benetako premiei erantzuten dieten, eta esku-hartze pertsonalizatuaren eta laneratzeko ibilbide kontzeptu logikatik eskainitako zerbitzuak.



# Helburu estrategikoen kuantifikazioa

Lehenago adierazitako helburu estrategikoak kuantitatiboki lortu beharreko 3 helburu nagusitan zehazten dira:

Egungo langabezia tasa denboran zehar murriztu, 2020ko azkeneko hiruhilekoan %10etik beherakoa izan dadin.

2017-2020 epean zehar 45.000 enplegu sustatu honakoen bitartez: enpresa berrien sorrera, enplegu-aukera gutxiago dituztenak kontratatzeko pizgarriak abiaraztea, eta birgaitzearen sustapen publikoa enplegu-sorrerarako sektore intentsibo gisa.

2017-2020 epean zehar 20.000 gazteei lan aukera eskaini.





## ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

## 6- Jarduera esparruak eta jarduera-ildoak



# Jarduera esparruak

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa 9 esparru operatiboetan antolatzen da:

|   |   |   |
|---|---|---|
| 1 | <b>ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA</b> | <p>Premisa honetatik abiatzen gara: enplegua enpresek sortzen dute. Enplegua sortzeko beharrezkoa da gure enpresa-egituran gehiengoa diren enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea eta tokiko ekonomiaren potentzial endogenoa baliatzea enplegurako jarduera intentsiboak garatzeko, bai eskualde bai tokiko mailan, hala nola, merkataritza, turismo jasangarria eta jarduera primarioak, enpresa txiki eta ertainen sarea indartzeko.</p> <p>Gainera, gure enpresa-sarearen finantzaketari laguntza ematen jarraitu behar dugu. Finantzaketa ezinbestekoa da enpresek gaur egungo enpleguari eutsi diezaioten eta indar hori erabil dezaten. Horrez gain, gizarte-ekonomia indartzen jarraitu behar dugu, gure herrian enplegua sortzeko ohiko motorra izan ohi delako.</p> |
| 2 | <b>EKINTZAILETZA SUSTATZEA</b>  | <p>Epe luzerako lan egin behar da, euskal gizartea gero eta ekintzaileagoa izan dadin. Zehatzago esanda, gizarte ekintzaileagoa izango bada, pertsonak –banaka zein taldeka, premiek edo aukerek bultzatuta– ideiak jarduera praktikoak bilakatu behar dituzte. Horrela, gizartean gero eta aintzatespen eta balio handiagoa duten ekintzailtzeta benetan izango da garapen ekonomikorako, kalitateko enplegurako eta gizartearen kohesiorako palanka.</p> <p>Horretarako ezinbestekoa da Euskadin kultura ekintzailea biziberritzea, autoenpleguko eta ekintzailtzeko aukerak sustatzea eta enpresa berrien sorrera bideratzeko behar diren baliabideak eskaintzea.</p>  |
| 3 | <b>GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA</b>                                       | <p>Gazteen laneratzea funtsezkoa da. Pertsona heldu bat gizartean guztiz integratuko bada, ezinbesteko du garapen profesionala.</p> <p>Gazteak dira, hain zuzen ere, azken krisialdiaren eraginak bereziki jasan duten kolektiboetako bat. Hortaz, beharrezkoa da gazteen laneratzea bultzatzeko konpromiso irmoa neurri zehatzen bidez praktikan jartzea, bereziki trebetasun gutxiago duten edota eskola porrotatik datozen gazteen taldea aintzat hartuz, eta zeharkako politika koordinatuaren bidez, enplegu eta prestakuntza-aukerak sustatzea, gazteei lan-merkatura sartzea eta epe motz, ertain eta luzeko laneratzea bermatuko dieten gaitasunak eskuratzen laguntzeko.</p>   |



|   |  |   |
|---|--|---|
| 4 | <b>ENPLEGURAKO<br/>PRESTAKUNTZA</b>    | <p>Pertsonen prestakuntzafuntsezko gaitasunetan, edo askotan “talentua” deiturikoa, lehiakortasunaren faktore nagusia da gizarte modernoetan. Euskadiko biztanle garaikideak gure historiako gaituenak dira. Eskola-porrotaren tasa oso txikia da, eta prestakuntzaren kalitate ona nazioartean onartzen da, gure ekoizpen-sarearen beharrei erantzuten dielako.</p> <p>Hala eta guztiz ere, oraindik ere prestakuntza eskasa edo zaharkitua duten biztanle-kopuru handiak ditugu. Bestalde, etengabeko prestakuntzaren mailak hobetu behar ditugu, etengabeko prestakuntza gizartean aintzat hartu eta sustatzen den dinamika izan arte. Gizarte aktiboa izate aldera, gaitasunak eskuratzea garapen pertsonal, profesional eta sozialaren zatizat hartu, eta gaitasunen garapena ezinbestekotzat jo behar dugu, Euskadiren aurrerapenerako.</p> |
| 5 | <b>LANERATZEKO<br/>PIZGARRIAK</b>      | <p>Suspertze ekonomikoaren aukerak benetako lanpostu bihurtu behar ditugu.</p> <p>Horretarako, enplegua sortzen laguntzeko pizgarrien aldeko apustua egingo da; zehazki, laneratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak lanera sar daitezten (gazteak, 55 urtetik gorako pertsona langabeak, luzaroko langabeak, desgaitasunak dituzten pertsonak, genero-erasoak jasan dituzten emakumeak, irregulartasun egoeran dauden pertsonak, immigranteak...).</p> <p>Gainera, tokiko eta eskualdeko enplegu-planak garatzeko apustua ere sustatzen da. Plan horiek udalerrietako eta eskualdeetako premien eta aukeren arabera moldatuko dira, tokiko enplegu-politiken eragina indartze aldera, eta tokiko enplegu-aukerak guztiz baliatzeko.</p>   |
| 6 | <b>RENOVE BIRGAITZE-<br/>PROGRAMAK</b> | <p>Krisiak indar bereziz eragin dio eraikuntza-sektoreari. Eraikuntzak, ordea, aukera dauka gure testuinguru ekonomikoan bere dimentsio logikoa berreskuratzeko.</p> <p>Birgaitze-sektorean enplegua sortu nahi dugu. Arlo horretan enplegu-aukera ugari daude, eta, gainera, garapen jasangarria sustatzen du. Zehatz-mehatz, honako arlo hauek lehenetsita daude: etxebizitzaren arloa (Euskadiko etxebizitzaren irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko jardueretan, batik bat), osasun-zentroen zaharberritzea eta osasun-zentroetako mantentze- eta birgaitze-lanak.</p>   |



|   |   |   |
|---|---|---|
| 7 | <b>ENPLEGU PUBLIKOA</b>                     | <p>Enplegu publikoa sustatzeko apustua egiten dugu. Horretan, oinarritzat hartzen dugu belaunaldien arteko errelebo egokia egitea eta enplegu publikoari lehentasuna ematea politika sozialekin lotutako eremuetan (bereziki, osasun- eta hezkuntza eremuetan), ezinbestekoak diren beste zerbitzu batzuei lotutako eremuetan (adibidez, segurtasunean; zehazki, Ertzaintzako belaunaldien berrikuntza egitea eta langileen kopurua handitzea) eta zerbitzu orokorrei buruzko beste eremu batzuetan (zerbitzu ekonomikoetan, plangintzako zerbitzuetan eta abarretan).</p> <p>Hori guztia egin behar da pertsona guztiei enplegu publikoan sartzeko aukera berdinak emanez eta hautaketa-prozesu ezin gardenagoak eginez.</p> |
| 8 | <b>ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA</b>  | <p>Kalitate handiagoko enplegua eskaintzen duen lan-merkatua sortzen lagundu nahi dugu.</p> <p>Enpleguaren kalitate handiagoak hauxe bermatu behar du: enpleguaren behin-behinekotasuna eta eskatu ez den partzialtasuna murriztea, lan-segurtasuna eta -osasuna hobetzen laguntzea, enpresen erantzukizuna areagotzea eta giza-baliabideen kudeaketa aurreratua edukitzea eta elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa handitzea, betiere itun-printzipioak araututako lan-harremanen berezko testuinguruan.</p>   |
| 9 | <b>EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAREN HOBEKUNTZA</b> | <p>Lanbide–Enpleguaren Euskal Zerbitzua sortzea funtsezkoa izan da, enplegu-politika aktiboen kudeaketa propioa egin ahal izateko.</p> <p>Lanbide martxan jarri eta hasierako urteak igaro ondoren, beharrezkoa da gure enplegu-zerbitzu publikoari beste bultzada bat ematea, enpleguan eragina izaten duten politika guztiak bertan biltzeko, enpresen zein pertsonen beharrei eraginkortasun eta efizientzia handiagoz –bai kontrol eta zorrotasun handiagoz ere– erantzuten dieten zerbitzuak sartzeko, eta baliozko zerbitzuak eskaintzeko.</p>  |



# Jarduera-ildoak

9 jarduera esparruak 35 jarduera-ildotan zabaltzen dira. Ondoren aurkezten da hauen eskema eta hauen helburuak ekimen lehenetsiak eta segimendu- eta ebaluazio-adierazleak 7. atalean zehazten dira. Horrez gain, zeharkako jarduera-ildo osagarria gehitzen da genero-ikuspegiari lotutakoa.

| JARDUERA ESPARRUAK   | JARDUERA-ILDOAK   |
|--|---|
| <b>1. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA</b> | 1.1- Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa eta zailtasunak dituzten enpresa txiki eta ertainei arreta |
|  | 1.2- Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea  |
|  | 1.3- Landa eta kosta inguruan enplegua sustatzea  |
|  | 1.4- Gizarte ekonomian enplegua sustatzea   |
|  | 1.5- Turismo sektoreko enplegua sustatzea   |
|  | 1.6- Enplegua berariaz sustatzea egoera ahulagoan dauden eskualde eta udalerrietan                      |
| <b>2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA</b>  | 2.1- Ekintzailletza berritzailea eta intraekintzailletza sustatzea                                      |
|  | 2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailletza sustatzea   |
| <b>3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA</b>                                       | 3.1- Hezkuntzatik lanera igarotzea  |
|  | 3.2- Lehen Aukera Programa  |
|  | 3.3- Gazte ekintzaileei laguntzea   |
|  | 3.4- Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak  |
|  | 3.5- Eraberritzeko edo erreleborako programak   |
|  | 3.6- Gazteen itzulera sustatzea   |
|  | 3.7- Talentu gaztea   |
|  | 3.8- Prestakuntza duala   |
|  | 3.9- Gazteen enplegurako prestakuntza   |



| JARDUERA ESPARRUAK                             | JARDUERA-ILDOAK   |
|--|---|
| <b>4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA</b>             | 4.1- Langabeen prestakuntza   |
|  | 4.2- Kontratazio konpromisodun prestakuntza   |
|  | 4.3- Landunentzako prestakuntza   |
| <b>5. LANERATZEKO PIZGARRIAK</b>               | 5.1- Tokiko eta eskualdeko enplegu planak   |
|  | 5.2- Egoera ahuleko edo enplegarritasun txikiagoko kolektiboen laneratzeko pizgarriak ematea  |
|  | 5.3- Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratzeta/gizarteratzea           |
|  | 5.4- Familia bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak                                     |
| <b>6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK</b>           | 6.1- RENOVE Etxebizitza   |
|  | 6.2- RENOVE Hezkuntza   |
|  | 6.3- RENOVE Osasuna   |
| <b>7. ENPLEGU PUBLIKOA</b>                     | 7.1- Administrazio publikoak eraberritzea   |
| <b>8. ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA</b>  | 8.1- Elkarrizketa soziala eta parte hartzea sustatzea   |
|  | 8.2- Gizarte eta enpresa erantzukizuna sustatzea eta langileen partaidetza enpresan sustatzea |
|  | 8.3- Gizarte ekonomiaren aldeko apustua   |
|  | 8.4- Kalitateko enplegua, enplegu segurua   |
| <b>9. EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAREN HOBEKUNTZA</b> | 9.1- Lanbide eraberritzea eta modernizatzea   |
|  | 9.2- Enplegu arloko behaketa eta prospekzio lana hobetzea                                     |
|  | 9.3- Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea                  |
| <b>ZEHARKAKOA</b>                              | Emakumeen enplegarritasunaren hobekuntza  |



**Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde ezberdinek buruzagitzen** dute 35 jarduera-ildoen abiaraztea. Orobat, beste **eragile eta instituzioen lankidetz**a dute, hauek aipatu behar direlarik:

- Foru Aldundiak.
- Udalak, Mankomunitateak, Tokiko Garapen Agentziak eta beste tokiko erakundeak, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen parte-hartze bereziarekin
- Enpresa Elkarteak
- Erakunde Sindikalak.
- Merkataritza Ganberak.
- Gizarte-ekonomia eta Hirugarren Sektoreko Elkarteak.
- Prestakuntza-zentroak eta Unibertsitateak.
- Enplegua, garapen ekonomikoa eta hezkuntza-politikekin lotutako beste eragileak.





**ENPLEGU**  
**PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020**

## 7- Burutuko diren jarduerak

# Burutuko diren jarduerak


Jarraian, Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020 osatzen duten ekintza-ildoak aurkezten ditugu.

Hauek zehazten dira ekintza-ildo bakoitzarentzat:

- Jarduera-ildo bakoitzaren testuingurua eta helburuak.
- Jarduera-ildo horren esparruan garatuko diren lehentasuneko ekimenak, aurretik zeudenak zein 2017-2020 aldian barneratuko diren ekimen berriak.
- Jarduera-ildo horren esparruan 2017-2020 aldian lortu nahi diren helburu estrategikoak, haien jarraipen eta ebaluazio adierazleekin batera. Kasu gehienetan, helburu estrategiko horiek zehaztapenak izaten dituzte, bai kantitate aldetik bai haiek lortzeko aurreikusitako denbora aldetik.







## 1. Jarduera Esparrua

# ETEAK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA

## 1.1 ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN FINANTZAKETA ETA ZAILTASUNAK DITUZTEN ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI ARRETA

Enpresa egitura sendo eta lehiakorra edukitzea funtsezkoa da enplegua mantentzeko, enpresak baitira enpleguaren sortzaile naturalak. Euskal enpresa-sarea ETEek osatzen dute nagusiki eta, eszenatoki ekonomiko berri baten aurrean bagaude ere, laguntzen jarraitu beharra dago, bai arreta zein aholkularitza pertsonalizatu bidez, euren jardunean dituzten arazoak ikusita, zeinak euren lehiakortasuna edota biziraunkortasuna baldintzatu dezaketen, euren bideragarritasuna eta finantza-egitura ziurtatze aldera (laguntza zirkulatzailerik gisa, inbertsioak egin ahal izateko...).

Hauek dira aurreikusi diren laguntza-neurri nagusiak:

- ✓ **Enpresei arreta, aholkularitza eta kudeaketa-zerbitzuak**, lan-harremanetan edo enpresaren egoera hobetzeko inbertitzaileak bilatu eta haiekin harremanetan jartzeko, zerga-zorrak zatikatzeko erraztasunak aztertzeko, finantzazio-bideak aurkitzeko, hartzekodunekin zein hornitzaileekin akordioak lortzeko zailtasunak dituzten enpresei, esaterako, euren bideragarritasuna arriskuan jartzen duten egoera eta arazo zehatzak konpontzeko.
- ✓ **Enpresen berregituratzeari eta berrabiarazteari finantza-laguntza** Bideratu Berria programaren bitartez, adibidez, zeinak haien berregituratze egitasmoetan bildutako neurriak sustatzeari zuzendutako eta itzul daitezkeen aurrerakinak eskuratzeko eta Luzaroren finantza berregituratzeko lerroak gauzatzeko laguntza ematen duen.
- ✓ **Finantza-sendotzea eta hazkuntza-prozesuak garatzeko laguntza enpresa-finantzaziorako tresnen bitartez**, Euskal Finantza Erakundearen finantzazio-lerroak; Luzaro BEI lerroa, inbertsioen finantzazioa, berrikuntza teknologikoko proiektuak, finantza-sendotzea eta enpresa hazkuntzari lotutako aktibo zirkulatzaileraren finantzaziora laguntzeko xedea dutenak, mailegu parte-hartzaileen bitartez; eta kapital-arriskuko enpresa garapeneko funtsak esaterako.
- ✓ **ETEen, banakako enpresarien eta profesional autonomoen finantza-egitura sendotzea, inbertsio-eragiketarako egiteko finantzazioa errazteko edo aktibo finko edo zirkulatzaileraren eskuratzeko**, 60/40 lerroaren bitartez esaterako, zeinaren bitartez Eusko Jaurlaritzak lagundutako eragiketen arriskuaren % 60 bere gain hartzen duen hainbat finantza-erakunderekin adostutako hitzarmenean oinarrituta edo Elkargi elkar bermatzeko sozietatearekin adostutako berriro finantzatzeko lerroa, zeinak kideei aktibo finko eta zirkulatzaileraren eskuratzeko abalak ematea errazten duen.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| Arreta, aholkularitza eta kudeaketa-laguntza zerbitzuak erraztea enpresei   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresen bitartez mantendutako enpleguak</li> </ul>  |
| Diru-laguntzak eman enpresak berregituratu eta berrabiarazteko  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> <li>▪ Emandako maileguen zenbatekoa (€, 2017-2020)</li> </ul> |
| 180 enpresaren hazteko proiektuen finantza-sendotzea eta garapena, lanpostuak mantentzeko.                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> <li>▪ Emandako maileguen zenbatekoa (€, 2017-2020)</li> </ul> |
| 900 enpresaren finantza-egitura sendotzea, aktibo finkoa eta zirkulatzailera eskuratu eta lanpostuak mantentzeko. | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> <li>▪ Emandako maileguen zenbatekoa (€, 2017-2020)</li> </ul> |


## 1.2 TOKIKO MERKATARITZAN ENPLEGUA SUSTATZEA

Tokiko eta inguruko merkataritza oso garrantzitsua da hirien eta herrien dinamika eta gizartean, eta tokiko ekonomiaren garapenaren bultzatzailea da, gainera. Sektoreko enpleguaren berezko ahalmenari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, haren lehiakortasunaren etengabeko hobekuntza bultzatu behar da, egokiak diren baliabide eta azpiegiturak dituen ingurune aldakorraren erronkei erantzuna emateko gai den enpresa-sare sendo, lehiakor eta profesional baten berme gisa.

Informazioko eta komunikazioko teknologia berrien barneratzea, informazioaren digitalizazioa, berrikuntza eta talentua sortzen laguntzea edo belaunaldi-ordezkatzea sustatzea, adibidez, funtsezkoak dira lehiakortasuna bermatu eta sektoreko enplegua sendotzeko.

Hauek dira aurreikusi diren laguntza-neurri nagusiak:

- ✓ **Merkataritza-saltokiak eta ekipoak hobetu eta modernizatzeko egindako inbertsioei laguntzak**, Merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntzak (MEC) programaren bitartez, esaterako, saltokia modernizatu eta berritzeko merkataritza-saltokietako inbertsio-proiektuak, obra zibila eta altzarietan egindako inbertsioei zein kudeaketa-ekipoak (ekipo informatikoak, aplikazioak, eta abar) hobetzeko egindakoei laguntzeko.
- ✓ **Merkataritza elektronikoa barneratu eta garatzea sustatzea**, prestakuntza eta teknologia eta komunikazioko teknologia berrietara barneratzeko laguntza-ekintzen bitartez Adibidez: Ecommerce programak aholkularitza eta laguntza zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditu lineako salmenta sustatzeko denda bakoitzaren garapen mailaren arabera (inplementazioa, optimizazioa, salmenta sare sozialetan eta salmenta kanpoko webguneen bitartez).
- ✓ **Sektorearen profesionalizazioari laguntza alderdi zehatzetako prestakuntzaren bitartez**, merkataritza-banaketa-dinamizatzaileak trebatzeko programa, esaterako, zeinak merkataritza-banaketan zuzenketa eta kudeaketa arloetako prestakuntza eta merkataritza-dinamizazio bulegoetan edo merkataritza-banaketekin lotutako beste entitate batzuetan esperientzia praktikoak tartekatzen dituen. Gainera, sektoreko lehiakortasuna hobetzeko jarduerak ere sartzen dira honetan, Euskalitek- Kalitatearen Sustapenerako Euskal Iraskundeak- koordinatutako Kudeaketa Aurreratuko programa, edo sektorearen lehiakortasunaren hobekuntza eta joera berrien ezagutza sustatzen dutenak, Ezagutza, Berrikuntza eta Enpresa Lehiakortasuna Hedatzeko programa, esaterako.
- ✓ **Belaunaldiz aldatzea sustatzea enpresa-transmisiorako laguntza-zerbitzuen bitartez**, jabetza aldatzea erraztu, jarraitutasuna bermatu eta saltokiaren jarduera bermatzen laguntzeko eta, aldi berean, gazte ekintzaileak sektorerantz erakartzeko.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| 4.500 merkataritza-saltokiren azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatzen laguntzea, sektorean enplegua mantentzen laguntzeko                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Modernizatutako merkataritza-saltokien kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Modernizatutako merkataritza-saltokietan enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>                                |
| Merkataritza elektronikoa barneratzen laguntzea 3.200 saltoki txikitan.   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Merkataritza elektronikoa barneratuko duten merkataritza-saltokien kopurua (2017-2020).</li> <li>▪ Merkataritza elektronikoa barneratu duten saltokietan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul> |
| Merkataritza-banaketan esperientzia praktikoa ematea 150 gazteri  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Merkataritza-banaketan prestatzeko diru-laguntzak jasoko dituzten gazteen kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| 60 merkataritza-saltokitan enpresa-transmisioa edo eskuz aldatzen laguntzea belaualdiz aldatzeko eta sektorean ekiteko  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskuz aldatutako merkataritza-saltokien kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Eskuz aldatutako merkataritza-saltokietan enpresetan sortutako/mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>                    |
| 800 merkataritza-saltokiren lehiakortasuna hobetzea kudeaketa aurreratuko programen eta gertuko saltokientzako enpresa kudeaketako trebatzeko ekintzen bitartez | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kudeaketa aurreratu eta enpresa kudeaketarako formakuntzako programetan parte hartuko duten merkataritza-saltokien kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |


### 1.3 LANDA ETA KOSTA INGURUAN ENPLEGUA SUSTATZEA

Landa ingurunean eta kostaldean enplegua sustatzea da tokiko ekonomia garatzeko landu beharreko beste eremu bat. Arlo horrek laguntza bezeriak behar ditu, azken krisialdi ekonomikoaren ondorioak bereziki bizi izan dituelako. Horregatik, jarduera primario eta eraldatzaileen sustapena eta laguntza funtsezkoa da landa ingurunean eta kostaldean enplegu-aukera berriak sortzeko eta daudenak mantentzeko, landa eta kostaldeko biztanleria aktiboa gazteagotzeko, eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko.

Gainera, kontuan izan behar da elikaduraren balio-kateko enpresei eta enpleguari laguntzeko programak kaltetuak izan direla 2015an nekazaritza eta landa garapenaren arloan Europako araudian egin ziren aldaketen ondorioz, non 2015-2010 Landa Garapeneko Programa berria onetsi zen eta eskualde zein estatuko administrazioek esparru arautzaile berriari egokitu behar izan zizkioten aurretik zeuden programak.

Hauek dira landa ingurunerako aurreikusi diren laguntza-neurri nagusiak:

- ✓ **Landa eta kostaldeko zonaldeetako garapen eta dibertsifikazio ekonomikoko jardueren sustapena** laguntza-programa zehatzen bitartez, Leader eta Erein, esaterako, jarduera ekonomiko eta enplegua sortzeko, enpresa espiritua zein ekintzailtza sustatzeko eta enpresa berriak abian jartzeko xedea dutenak, gazteen artean bereziki (start-up).
- ✓ **Sektoreko profesionalen trebakuntza sendotzea**, gazteak sektorerara barneratzea errazteko gai zehatzen inguruko prestakuntza intentsiboen bitartez (gaitasun profesionaletan, teknikoetan eta enpresa-gaitasunetan sakontzen) eta prestakuntza teorikoarekin batera nekazal eta elikadurako enpresetan praktikak eskaintzen dituzten hezkuntza-ekintzen bitartez, non Europa mailako nekazaritzako elikagaien eta ustiapenen beste herrialdeetako enpresekin trukeak egin ahal izango diren. Gainera, sektorerara gerturatzeko esperientzia praktikoak garatzen lagunduko da nekazaritza sektorea eta ekiteko eskaintzen dituen aukerak eta haren balio-katea eratzen duten enpresak hobeto ezagutu eta hurbiltzeko diru-laguntza bidez.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| <p>Nekazal eta kostaldeko inguruneetan 400 enplegu sortzen laguntzea, gazteengan gehienbat enpresa eta ekintzailatza espirtua piztuz, enpresa berriak abian jarriz eta landa inguruneetan dibertsifikazio ekonomikorako enpresetan inbertsioak eginez.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sortutako enpresa berrien kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Enpresa berriek sortutako enpleguak (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasoko duten existitzen ziren enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Abian dauden enpresen dibertsifikazio-jardueren ondorioz sortutako enpleguak (2017-2020)</li> <li>▪ Landa eta kostaldeko inguruneetan kontratatuzko pizgarrien bitartez kontratatutako pertsona kopurua</li> </ul> |
| <p>Sektore primarioaren eta landa ingurunearen lehiakortasuna eta bideragarritasuna areagotzea, sektoreko 22.000 profesional trebatuz eta gaitasunak emanez.</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| <p>Sektore primarioan edo nekazaritzako elikagaien enpresetan lan egiten duten pertsonen gaitasunak edo sektorean sartzen diren nekazari gazteenak hobetzea, ustiategi eta nekazaritzako elikagaien enpresekin trukeak eginez.</p>                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ustiapen eta nekazaritzako elikagaien trukeetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| <p>Nekazaritzako sektorearen eta hark eskaintzen dituen ekiteko aukeren ulermena hobetzea hurbiltzeko 100 diru-laguntzaren bitartez</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gerturatzeko diru-laguntzak jasoko dituzten gazteen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |

## 1.4 GIZARTE EKONOMIAN ENPLEGUA SUSTATZEA

Gizarte ekonomia betidanik izan da, eta jarraitzen du izaten, enplegua sortzearen motorra. Euskadin, gainera, oso presentzia sendoa du, eta aberastasuna eta enplegua sortzen asko laguntzen du. Aipatu beharra dago, era berean, gizarte ekonomiako enpresak osatzen dituzten pertsonen lan baldintzekin dugun konpromisoa beste arlo batzuetan baino gehiago islatzen dela kalitate handiagoko enplegua sortzean.

Gizarteko ekonomiako enpresa berriak sortzen laguntzea eta dagoeneko abian diren enpresak sendotzen eta garatzen laguntzea dira hurrengo urteetan sustatzen jarraituko diren lerroak, eta horiei zuzenduta jarriko dira martxan hurrengo neurriak:

- ✓ Gizarte ekonomian ekintzailatza sustatzea, **gizarte ekonomiako enpresak sortzen laguntzeko zerbitzu integralen bitartez**, aholkularitza, laguntza, garapeneko finantzazioa, martxan jartze eta ekimen berriak sendotzea barne.
- ✓ **Krisialdia bizi duten enpresei laguntzeko eta eskuz aldatzera doazen enpresei gizarte ekonomian eraldatzeko ekintza bereziak**, eta baita enpresa horien jarraitutasuna errazteko ekintzak ere.
- ✓ **Gizarte ekonomiako enpresen sozietatearen oinarria areagotzea**. Horretarako, bazkide mugagabeak sendotzen eta bazkide berriak barneratzen lagunduko da.
- ✓ **Gizarte ekonomia tokiko garapeneko lurralde politikekin eta Europa mailakoekin lotzea bultzatzea**, eta eskualdeko tokiko enpresa eta administrazioekin lan egitea gizarte ekonomian enplegua sortzea eta mantentzea errazteko.
- ✓ **Gizarte ekonomiako enpresen arteko era orotako lankidetzak sustatzea**, mantentzeko berme eta enpresaren zein gizartearen hazkuntza eta garapen bultzatzaile gisa.
- ✓ Kudeaketa aurreratuko tresnak inplementatzen laguntzea **gizarte ekonomiari lotutako langile bazkideen enpresa kudeaketa egokia** sustatzeko.
- ✓ **Langileen partaidetza sustatzea** enpresen kudeaketan, emaitzetan eta kapitalean, ohiko enpresetan gizarte ekonomiaren balioak eta ezaugarriak zabaltzeko.
- ✓ **Lankidetzarako enpresen proiektuentzako finantzazioaren** sustapena.





| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| Gizarte ekonomiako 800 enpresa berri sortzen laguntzea  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sortutako gizarte ekonomiako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jaso duten gizarte ekonomiako enpresa berriek sortutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>  |
| Gizarte ekonomiako enpresetako lan-bazkide mugagabeen oinarria areagotzea, bereziki emakumeen, gazteen, desgaitasunen bat duten pertsonen edota lana aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean, 700 bazkide berri barneratzen. | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gizarte kontratu mugagabe totalen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Gazteen gizarte kontratu mugagabeen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Emakumeen gizarte kontratu mugagabeen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Desgaitasunak edo barneratze-arazoak dituzten pertsonen gizarte kontratu mugagabeen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| Eraldaketa prozesuak giten laguntzea krisialdia bizi duten enpresen gizarte ekonomiako enpresetan edo oinordetza-dinamikak bizi dituzten enpresetan, enpresari jarraitutasuna emateko eta lanpostuei eusteko irtenbide gisa.          | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan sortutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>   |
| Gizarte ekonomiako enpresak kanpoko finantzazioa lortzea erraztea, txikiak eta barneratze-arloari lotutakoak bereziki, elkarrekin batera lan eginez, 160 enpresarentzako abalak emanaz.   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Emandako abalen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Emandako abalen zenbatekoa (€, 2017-2020)</li> <li>▪ Emandako abalekin lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Abalak jasoko dituzten enpresetan lagundutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>  |

## 1.5 TURISMO SEKTOREKO ENPLEGUA SUSTATZEA

Tokiko ekonomian garrantzia berezia duen beste sektore bat turismoarena da. Tokiko zein eskualdeko enplegu-sorgune gisa duen ahalmenari onura ateratzeko asmoz, oso garrantzitsua da sektorearen eta hura osatzen duten profesionalen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, jomuga turistiko jasangarri eta erakargarriak sortze aldera, ekipamendu eta azpiegitura moderno eta irisgarriak eta trebatutako profesionalak dituztenak, esperientziak garrantzia handia duen zerbitzu berritzaileak eskaintzeko gai direnak.

Testuingurua hori izanik, hurrengo eremuetan aurreikusten dira neurriak:

- ✓ **Jomugaren erakargarritasuna eta kalitatea hobetzen duten proiektu turistiko jasangarrien garapenari** laguntzeko programak sendotzea. Horretarako, sektoreko jarduera areagotzen duten turismo-fluxuak dinamizatu eta berriak sortuko dira, besteak beste Lurraldeko Turismo Proiektuak (PTT), zeinak produktu turistikoaren sorrera, martxan jartzea eta merkaturatzea sustatuko duen eta haiek burutzeko beharrezkoak diren langileak kontratatzen lagunduko da.
- ✓ **Turismoko enpresen modernizazioa eta hobekuntza** sustatzea, berrikuntza teknologikoak inplementatzen laguntzea, azpiegituren eta zerbitzuen hobekuntzarako inbertsioak, eskaintza turistikoa indarrean dagoen irisgarritasun araudira egokitzea eta kalitatearen zein ingurumen kudeaketako ziurta daitezkeen sistemen inplementazioa barne. Erreferentzia gisa, Turismoko Enpresen Modernizazio programa (MET) nabarmentzen da.
- ✓ **Belaunaldiz aldatzea sustatzea enpresa-transmisiorako laguntza-zerbitzuen bitartez**, jabetza aldatzea erraztu, jarraitutasuna bermatu eta saltokiaren jarduera bermatzen laguntzeko eta, aldi berean, gazte ekintzaileak sektorerantz erakartzeko.
- ✓ Sektorearen profesionalizazioa lortzen laguntzea **trebatzeko ekintzen bitartez**, kalitate turistikoaren eremuan eta Informazioko eta Komunikazioko Teknologia berrien eremuan (IKTak) praktika onak; berrikuntza teknologikoa (Barnetegi Teknologikoak); Ingurumenaren Kudeaketa Sistemak enpresa turistikoetan; eta sektoreko “xehetasunaren kultura” (“Anfitrioi” proiektua), besteak beste.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| 700 turismo-enpresaren azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatzen laguntzea, sektorean enplegua mantentzen laguntzeko  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Modernizatutako turismoko enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Modernizatutako turismoko enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>  |
| Turismo-enpresak eskuz aldatzen laguntzea belaunaldiz aldatzeko eta sektorean ekiteko   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskuz aldatutako turismo enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Eskuz aldatutako enpresetan sortutako edo mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>  |
| Turismoaren sektoreko profesionalen trebakuntza hobetzen laguntzea, enpresen eta jomugen lehiakortasuna bultzatuko duten prestakuntza bitartez, eta, ondorioz, turismo jasagarri eta arduratsua garatzea bultzatuz. | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Turismo kalitatean, IKTetan eta Ecolabelen praktika onetan trebatutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ “Xehetasunaren kultura” delakoan eta berrikuntza teknologian trebatutako pertsona kopurua</li> </ul> |

## 1.6 ENPLEGUA BERARIAZ SUSTATZEA EGOERA AHULAGOAN DAUDEN ESKUALDE ETA UDALERRIETAN

Azken aldiko krisialdi ekonomikoak kalte handiagoak eragin ditu eskualde eta udalerrri batzuetan eta, haien ezaugarriak edo egitura direla eta, kaltetuago gisa sailka daitezke. Zona horiei zuzendutako laguntzarako neurri bereziak ez hartzeak desberdintasun handiak eragin ditzake garapen ekonomikoaren aldetik eta, horrek, eskualde edo udalerrri horietan langabezia areagotu eta enpleguaren kalitatea jaistearen eragin dezake, ondorioz.

Egoera okerrenea bizi duten eskualde eta udalerrrien ekintza positibo bidez lurraldearen garapen orekatua bermatze aldera, hurrengo neurriak hartuko dira:

- ✓ **Egitura aldaketa garrantzitsuak izango dituzten edo Europar Batasuneko Eskualdeko Laguntzen Mapan (DAR) krisialdi larria bizi duten enpleguan eragiteko ekintzen programa bateratuen** aktibazioa, Foru Aldundiekin eta kaltetutako udalerriekin lankidetzan.
- ✓ **Tokiko eta eskualdeko garapen planen** sustapena indize sozio-ekonomiko larrienak, batez bestekoa baino askoz ere langabezia handiagoa, altzairuaren krisialdiak kaltetu edo puntako enpresak itxi edo lekuz aldatu dutelako enplegu galera handiak izan dituzten udalerrrien dinamizazio ekonomiko eta sozialerako. Planek ekintza sendoak aurreikusten dituzte, eta ekintza positiboa, enplegu-programetan, bazterketaren aurkako borroka, prestakuntzan, hirien zaharberritzean, industria lurzoruaren berreskurapenean, berpizte ekonomikoa eta I+G+b programetan, eta zonalde horien industrializazioaren barneratze berriaren eraginean.
- ✓ **Enplegu sortzaileen inbertsio-proiektuen sustapena langabezia-tasa handia duten zonetan**, Indartu programa, esaterako, enplegua sortzeko ekoizpen-inbertsioak egiten dituzten enpresei zuzendua (5 eta 20 enplegu bitartean) Nerbioi Ibaiaren Ezkerraldeko zonetan (Bizkaia) eta Oiartzualdean (Gipuzkoa), produktuaren eraldaketa-prozesuan hobekuntzei zuzenean lotutako inbertsioei, gaitasunak areagotzeko edo jarduera berrien garapenera lotutakoei lehentasuna emanaz.

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| 50 enpresari enplegua sortzeko inbertsio-proiektuak egoera okerra bizi duten zonaldeetan garatzen laguntzea, 700 lanpostu sortzen laguntzeko eta aurretik zituzten lanpostuei eusteko | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li><li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan sortutako enpleguak (2017-2020)</li><li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li></ul> |





## 2. Jarduera Esparrua EKINTZAILETZA SUSTATZEA

## 2.1 EKINTZAILETZA BERRITZAILEA ETA INTRA EKINTZAILETZA SUSTATZEA

Ekimen ekintzaileak modu bateratuan laguntzea, gero eta proiektu, enpresak eta enplegu lehiakor eta jasangarri gehiago sor ditzaten, etorkizuneko sektoreetan bereziki, funtsezkoa da Euskadi lurralde ekintzaile gisa sendotzeko. Euskadi 2020 Erakundearen arteko Ekintzailetza Plan berriak euskal gizarte gero eta ekintzaileago baten alde egin du, laguntza behar desberdinak osotasunean estaltzeko ekiteko gaitasuna eta jarrera duten pertsonekin, ekosistema publiko-pribatua eta sinergikoan. Hori guztia Euskadi enpresei eta pertsoneri lehiakortasun jasangarr bermatzen duen ekiteko leku egoki gisa, aukerak eskaintzen dituena eta jarduera ekonomiko eta enplegu iturri berriak dituena gisa kokatzea.

Helburu horiek lortzen laguntzeko, hurrengo ekintzak burutu nahi dira:

- ✓ **Ekintzailetza ekimen berriak garatzeko laguntza bateratua**, ideia zehaztu eta garatzeko laguntza eta aholkularitza, eta proiektua martxan jartzeko finantzazioa atzitzeko laguntza. Ereku horretako erreferentziarako programen artean dago Ekintzaile, BICek eta ekintzailetzako beste eragileek babestutako industriako oinarri teknologikoko enpresa proiektu berritzaileak babesten dituena, enpresa-planetan laguntzeko zerbitzuekin eta finantzazioa lortu eta martxan jartzeko zerbitzuekin batera; edo Gauzatu programa, oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEak sortu eta garatzeko xedea duena, etorkizunera begira lehiakortasuneko estrategia gisa, enplegua sortzeko inbertsioa laguntzen.
- ✓ **Barne-ekintzailetza ekimenean** sustapena, enpresen barne-ekintzailetzaren ahalmenari etekina ateratzeko sentsibilizazio, ahalduntze, laguntza eta lankidetzaren neurrien bitartez. Badira dagoeneko ongi finkatutako industria sektoreko enpresen barne-ekintzailetzako proiektu berriak aztertzen, zehazten eta martxan jartzen ari diren zenbait programa, Barne-ekintzaile esaterako.
- ✓ **Ekintzaileen proiektuei “lehenengo bezeroak” bilatzeari eta haiek merkaturatzen laguntzeko programen** sustapena, RIS3 Espezializazio Adimenduko Euskal Estrategiarentzat lehentasuna duten sektoreetan bereziki. Erreferentzia gisa, BIND 4.0 programa aipatu beharra dago, 4.0 industriaren eremuan startup-ak azeleratzeko, non startup bakoitzak industria enpresa handi batekin kontratua sinatzea erraztuko den, mentoring eta azelerazio programa pertsonalizatuaz gain.
- ✓ **Ekintzailetza proiektuak sendotzen laguntzea kapitala-arriskua / kapitala-hazia indartzeko tresnen bidez**, Basque Fondo esaterako, zeinak kapitaleko partaidetzak edota mailegu parte-hartzaileak eskaintzen dituen, proiektuen beharrei erantzuna emateko ibilbidearen fase desberdinetan. Luzaro da erreferentziarako laguntza tresna edo beste modu bat, enpresa berritzaile berriei garatzen laguntzeko mailegu parte-hartzaileak ematen dituen entitateak.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak   |
|--|---|
| Oinarri teknologiko berritzaileko 120 enpresa-proiektu berri sortu eta martxan jartzen laguntzea.                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sortutako enpresa berritzaile berrien kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Enpresa berriek sortutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>  |
| Industriako 180 ETEan oinarri teknologikoko proiektu berritzaileak martxan jartzen laguntzea                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Proiektu berrien bitartez sortutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>   |
| Barne-ekintzaitzako 200 ekimenen garapena sustatzea  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Barne-ekintzaitzako programetan parte hartuko duten enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Sortutako enpleguen kopurua (2017-2020)</li> </ul>                 |
| Trakzio-enpresen lankidetzarekin, proiektuetan 70 startup-en ekintzaitza ekimen berriak merkaturatzen laguntzea.             | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Parte hartuko duten Startupen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Parte hartuko duten trakzio-enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten lankidetzaren proiektuen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| 60 ekintzaitza ekimen sendotzen laguntzea kapital-arriskuaren / kapital-haziaren bitartez eta partaidetza-maileguen bitartez | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan sortutako edo mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>   |

## 2.2. AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILATZA SUSTATZEA

Mikroekintzailtzak betekizun garrantzitsua du euskal enpresa-sarean, non enpresa txikiak diren nagusi, tokiko ekonomiaren garapenean gehienbat. Autonomoei eta mikroenpresei laguntzea, aholkularitza zerbitzuak eta laguntza emanaz ekintzailtza ekimenak zehaztu eta diseinatzeko orduan, adibidez, eta baita proiektuak martxan jartzeko finantzazioa atzitzen laguntzea, gako-eragilea da ekintzailtza txikiak garatzea sustatzeko. Gainera, langabetuentzako aukera interesgarria izan daiteke.

Testuinguru horretan, hurrengo neurriak aurreikusi dira:

- ✓ **Ekimen ekintzaile txiki berriak garatzen eta martxan jartzen laguntzea**, enpresa ideia berriak garatzeko, proiektuen bideragarritasunaren analisia egiteko, negozio-planak egiteko, ekimen berriak martxan jartzeko eta haiek sendotzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzen duten programen bitartez, eta Lanbidek sustatutako Ekintzaileentzako Laguntza programaren bitartez.
- ✓ **Ekintzailtza lan-munduan barneratzeko aukera gisa** sustatzea, langabezian daudenen artean lan autonomoa sortzea erraztuz, Gizarte Segurantzatik langabezia-prestazioa jasotzen dutenei kuotak ordaintzeko programaren bitartez, esaterako.
- ✓ Mikroekintzailtza proiektuek **finantzazioa atzitzeko laguntzak** sendotzea, mikrofinantzazioan adituak diren entitateekin lankidetzak hitzarmenen bitartez, ekintzaileei haien enpresak martxan jartzeko beharrezkoak diren aktiboak finantzatzeko baldintza onuragarriak eskaini ahal izateko (maileguen interes-tasa murrizketa, bermerik edo abalik behar ez izatea, azterketa edo irekitze-komisiorik ez aplikatzea...).
- ✓ **Beste eragileekin lankidetzak** autonomoei eta mikroenpresei laguntza pertsonalizatua eskaintzeko programak garatzeko, DEMA programa, esaterako.





| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| <p>1.200 mikroenpresa eta enpresa txiki berri garatzen eta martxan jartzen laguntzea, euskal administrazioaren baliabideekin edo beste eragileen lankidetzari esker (3.3 lerroan aipaturiko gazteen ekintzailtza barne hartu gabe).</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Sortutako enpleguen kopurua (2017-2020)</li> </ul>                            |
| <p>2.400 mikroenpresa eta enpresa txikiren sendotzea erraztea sortu berri diren enpresen sustapena, funtzionamendua eta kudeaketa bultzatzen.</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sendotutako enpresa berrien kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Sendotutako enpresetan mantendutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul> |
| <p>2.000 langabetu lan-munduan barneratzea erraztea, horretarako ekintzailtza-proiektuak garatzeko langabeziaren kapitalizazioa laguntzen.</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Laguntza jasoko duten langabetuen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> </ul>              |



### 3. Jarduera Esparrua

## GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPENA

### 3.1 HEZKUNTZATIK LANERA IGAROTZEA

Gazteen enplegua sustatzeko dauden modu ezberdinen artean, lehenengo lan-esperientzia lortzea erronka garrantzitsua da, gazteek ikasketak bukatu eta lan munduan sartu behar dutenean izaten dituzten zailtasunak kontuan hartuta. Ikusi denez, ikasketetatik lanera igarotzea oso zaila izan daiteke gabezia batzuk direla eta, besteak beste, gazteek eskarmenturik ez dutela edo enpresek lanpostu bakoitzak behar dituen funtzioak eta atazak betetzeko lan-gaitasun gehiago behar dituztela.

Testuinguru horretan, hurrengo lan-ildoak aurreikusten dira gazteak hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzen laguntzeko:

- ✓ **Ikasketetatik lanera igarotzeko programa zehatz baten diseinua eta martxan jartzea**, unibertsitateekin eta lanbide heziketako zentroekin lankidetzan, zeinaren bitartez unibertsitateko zein lanbide heziketako azken urteetako ikasleek esperientzia praktikoa hartuko duten araututako prestakuntzaren bukaeratik ahalik eta epe laburrenean.
- ✓ **Hezkuntza fasea bukatu eta lanean barneratzeko gazteen aldizkako analisia eta jarraipen espezifikoa**, aurre egin beharko dieten gabezien eta arazoengatik inguruko informazio eguneratua lortzeko, hezkuntzatik lanera igarotzea errazteko zuzendutako lehenengo lan-esperientziak egokitu, moldatu edo garatze aldera.
- ✓ **Enpresak gazteak lehenengo lan-esperientzia atzitzen laguntzeko lankidetzaren garrantziaz jabetzea**, gako-elementu gisa eta, ondorioz, epe ertainean hobeto egokitutako profil profesionalen eta enpresen benetako beharren egokitzapena lortzeko.
- ✓ Azken urtea ikasten ari diren gazteei zuzendutako **lanean barneratzeko laguntza eta arreta pertsonalizatua** sustatzea, lan-merkatua, hartan sartzeko mekanismoak eta funtzionamendua hobeto ezagutu dezaten unibertsitateetako campusetan kokatutako Enplegu-guneen bitartez edo beste hainbat eragileren lankidetzari esker, Fundación Novia Salcedo esaterako, zeinak arreta zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dituen unibertsitate mailan zein hezkuntza zikloetan. Bi laguntza-motek barneratze-helburuak dituzte.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| <p>Hezkuntza mundutik lan mundura igarotzeko esperientzia praktikoa erraztea unibertsitateko eta lanbide heziketako azken ikasturteetako 5.000 gazteri.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Programan parte hartuko duten lanbide heziketako ikasleen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Programan parte hartuko duten unibertsitateko ikasleen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| <p>Araututako hezkuntzaren ondoren gazteen lan munduan sartzearen jarraipen-sistemak eta azterketak sendotzea</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Araututako ikasketak bukatu eta 6 hileko epean lehenengo lan-kontratua lortzen duten gazteen % (2017-2020)</li> </ul>  |



### 3.2. LEHEN AUKERA PROGRAMA

Gazteak dira krisialdiaren ondorioak beraien buruan gehien sentitu dutenak, bai **lan aukerak gutxiagotu direlako** bai **kalitatezko aukera erakargarrik ez** zegoelako. Egoera horren ondorioak enpleguaren eremua gainditzen dute, gainera, eta barneratze sozialean eta gazteen bizi-proiektuen garapenean ere dute eragina. Horrez gain, gazteen langabeziak errealitate oso desberdinak ditu, zeinak gutxi trebatutako pertsonengan zein ongi trebatuta baina lan esperientzia eskasa izateagatik lan merkatuan aukera gutxi dituztenengan ere duten eragina.

Beraz, gazteek lehenengo lan-aukera izan dezaten enpresen eta gazteen arteko hurbilketa erraztea lehentasuneko helburua da.

Hauek dira helburua lortze aldera ezarriko diren neurriak:

- ✓ **Lehenengo lan-esperientzia lortzea** sustatzeko baliabideak sendotzea, langabezian dauden gazteak edo aurretik lan gutxi edo lanik egin ez duten gazteak kontratatzen laguntzeko Lehen Aukera programa, esaterako, zeinaren bidez ikasitakoarekin lotutako enplegua lortzea erraztuko duten esperientzia profesionalaren bitartez.
- ✓ **Lehenengo lan esperientzia bultzatzen duten hainbat programa publiko edo laguntza-modalitatearen arteko konexioa edo lotura** sustatzea, lan merkatura sartzeko edo hartan barneratzeko prozesu zabalago baten faseak balira bezala (trebakuntza duala, lantokietan prestakuntza praktikoa, ikasketetatik lanera igarotzea...).
- ✓ **Lehenengo lan esperientzia lortzen laguntzeko egun dauden programen ezaugarriak, barne-prozedurak eta baldintzak berrikustea** haien eraginkortasuna, erabilera eta erakargarritasuna bermatzeko enpresen ikuspuntutik.
- ✓ **Lehenengo lan esperientzia lortzen laguntzeko programetan gazteen lanean barneratzearen jarraipena egitea**, gazteak lanean hasten laguntzeko neurri horiek benetan laguntzen duten ala ez ikusteko.

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| 3.000 gazteri lanean hasteko lehenengo aukera erraztea enpresek haiek ikasitakoarekin lotutako enpleguetan kontratatzea erraztuz. | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Programaren bitartez kontratatutako gazteen kopurua (2017-2020)</li><li>▪ Laguntza jasoko duten enpresen kopurua (2017-2020)</li></ul> |



### 3.3 GAZTE EKINTZAILEEI LAGUNTZEA

Enpresa eta ekintzailtza espirituaren garapena eta balioestek eragin zuzena du enpleguan. Horregatik, garrantzitsua da gizartearen maila guztietan eta bizitzaren etapa guztietan ekintzailtza kultura eta haren balioak sustatzea ekintzailtza etorkizunerako aukera erakargarri gisa ikusia izateko.

Euskal gazteen artean autoenplegua, beraz, lehenengo urratsetako bat da espirtu ekintzailearen garapena eta sendotzea lortzeko. Horretarako, hainbat neurri ezarri nahi dira, batetik, hezkuntza sisteman bertan ekintzailtza kultura sustatzeko (lanbide heziketan eta unibertsitateetan) eta, bestetik, ideiak garatzen eta ekimen ekintzaile berriak martxan jartzeko.

Hauek dira aurreikusi diren ekintza-ildo nagusiak:

- ✓ **Ekintzailtzaileen balioak hezkuntza arloa hedatzea** Ikasenpresa programaren bitartez, adibidez, erdi eta goi-mailako ikasketetako ikasleei zuzendutakoa, zeinaren bitartez gaitasun ekintzaileak garatzen laguntzen den, eskola-enpresak gelan sortu eta kudeatzean oinarritutako ikasteko metodo baten bitartez. Teknikak koordinatzen du programa hau (Lanbide Heziketari aplikatutako ikerketa eta berrikuntzako EAEko zentroa).
- ✓ **Ekintzailtza-programak sendotzea lanbide heziketaren eremuan**, enpresak sortzen laguntzeko Urrats Bat programaren bitartez, besteak beste, zeinak lanbide heziketari lotutako pertsona ekintzaileei aholkularitza zerbitzu bateratua ematen dien eta zentroko bulego edo areto bat erabiltzeko aukera ematen dien enpresen haztegi gisa erabiltzeko. Gainera, zentroek enpresa proiektuen sentsibilizazio eta dinamizazio lan proaktiboak (tutoretzak) burutzen dituzte.
- ✓ **Ekintzailtza programak unibertsitatean sendotzea**, ahalduntze eta ekintzailtzaile programen bidez, graduondoko eta doktoretzako programak ekintzailtzaileekin elkartzuz, enpresa-ehuna sortzeari edo enpresen arteko lankidetzara bultzatzeari zuzendutako azpiegiturak eskainiaz, Entreprenari, Zitek eta Inizia programen bidez, adibidez, zeinak unibertsitateko kanpusetan enpresen haztegiak sortzeko xedea duten, sentsibilizazio (trebatze-tailerrak, mintegiak, lehiaketak,...) eta oinarri teknologikoko enpresa proiektu berritzaileei laguntzeko eta aholkularitza emateko xedea duten.
- ✓ **Gazteen ekimen ekintzaileen garapenerako eta martxan jartzeko laguntza bateratua ematea**, enpresa ideia berriak garatzeko, proiektuen bideragarritasunaren analisia egiteko, negozio-planak egiteko, ekimen berriak martxan jartzeko eta haiek sendotzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzen duten programen bitartez, eta Lanbidek sustatutako Ekintzaileentzako Laguntza programaren bitartez. Zentzu horretan, aipatu beharra daude Gaztenpresa programa eta Lanbidek bultzatutako Ekintzaileei Laguntzeko programa, besteak beste.




| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| <p>Gazteen ekintzailatza sustatzea lanbide heziketako eremuan, eta 300 enpresa sortzen laguntzea.</p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lanbide heziketako eremuan sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Lanbide heziketako eremuko ekintzailatza-proiektu berriek sortutako enpleguen kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| <p>Unibertsitatearekin lan egiteko hitzarmenak eta ekimenak garatzea, ekintzailatzaren inguruan sentsibilizatu eta unibertsitatean sorten diren ekimen ekintzaileak bultzatzeko (graduak, graduondokoak eta doktoretzak)</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sentsibilizatutako unibertsitateko ikasleen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Unibertsitateekin lankidetzan sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Unibertsitateekin lankidetzaren ondoriozko ekintzailatza berriekin sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| <p>Gazteen 1.700 enpresa berri garatu eta martxan jartzea euskal administrazioak eskainitako zerbitzuen baliabideei (Lanbide, SPRI,...) eta beste erakunde eta agente espezializatuekin hitzartutako baliabideei esker</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gazteek sortutako enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Gazte ekintzaileek sortutako enpleguak (2017-2020)</li> </ul>   |

### 3.4 GAZTEEI ZUZENDUTAKO TOKIKO ENPLEGU-PLANAK

Enpleguko Tokiko eta Eskualdeko Planen xedea (ikus 5.1 ekintza-ildoak) garapen sozioekonomikoan eta lurraldearen modernizazioan eragina duten enpleguak sortzera zuzendutako proiektuei laguntza ematea da, udalekin, mankomunitateekin eta tokiko eta eskualdeko garapen agentziekin elkarlanean, eta langabetuen enplegagarritasuna hobetzea, egoera txarrean dauden taldeak lan-merkatuan sartzeari arreta berezia eskainita.

Gazteen langabezia tasak adierazten du gazteak lan merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituztenen artean daudela, beraz, haiei **betekizun berezia eman behar zaie ahalduz-tresna honen bitartez laneko esperientzia erreal baten bidez.**

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bitartez kontratatutako pertsonen % 30 edo gehiago 35 urtetik beherakoak izatea. | <ul style="list-style-type: none"><li data-bbox="1058 568 1881 596">▪ Tokiko planen bitartez kontratatutako gazteen kopurua (2017-2020)</li><li data-bbox="1058 615 1922 672">▪ Kontratatutako gazteen portzentajea Enpleguko Tokiko Planen bitartez kontratatutakoekiko (2017-2020)</li></ul> |





### 3.5 ERABERRITZEKO EDO ERRELEBORAKO PROGRAMAK

Txanda-enplegua, belaunaldiz aldatzeko edo erretiroarengatik, baja boluntarioarengatik edo berritzeagatik hutsik gelditzen diren lanpostuak betetzeko balio duena, enplegu-iturri bat da enpresa mailan zein herri administrazioan. Haren plangintza eta kudeaketa egokia funtsezkoa da pixkanaka erakunde publiko eta pribatuetan sortzen doazen enplegu-aukera horiei etekina ateratzeko.

Txanda eta berrikuntza behar horiei erantzuna emateko hautagaien taldea osatzen dute gazteek, zeinak euren ibilbide profesionala hasten ari diren eta esperientziari lotutako jakintzari onura atera eta hura atxikitzeko gaitasun eta motibazio handia duten. Enplegua sortzeko aukera horiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, hurrengo laguntza-ildoak aurreikusi dira:

- ✓ Enpresako langileen berrikuntza piztea gazteak barneratuko dituzten **txanda-kontratuak bultzatzeko programa baten bitartez**.
- ✓ **Enpresen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa txanda eta berritze kontratu horiek bultzatzeko neurrien ahalmenei buruz**, ordezkaturako pertsonak barneratutako esperientzia eta jakintza transmititzea eta atxikitzea errazten dutelako.
- ✓ **Sektore publikoko txanda-kontratuen plangintza eta kudeaketa**, osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren, administrazio orokorraren eta justiziaren eremuetan gehienbat, eta gazteak lanpostuetara iristea erraztea Enplegu Eskaintza Publikoen bitartez.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak   |
|--|---|
| 400 gazteren kontratazioa sustatzea sektore pribatuko txanda-kontratuen bitartez.  | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Txanda-kontratuen bitartez kontratatutako gazteen kopurua (2017-2020)</li></ul>   |
| Euskal herri administrazioan erretiratu direnen lanpostuak betetzeko 3.200 gazteri lanean barneratzen laguntzea (2017-2020 aldian barneratzea aurreikusita daudenetatik) | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Euskal herri administrazioaren Enplegu Eskaintza Publikoen bitartez enplegua lotzen duten gazteen kopurua (2017-2020)</li></ul> |



### 3.6 GAZTEEN ITZULERA SUSTATZEA

Azken urteotan bizi izandako finantza eta ekonomia krisialdiak gazteen “talentu-ihesa” eragin du, beste herrialdeetan lan aukera gehiago dutelako. “Talentuen ihes” horren ondorioz, inbertsioa jaitsi da hezkuntzan, eta pertsona horiek gizarte kapital gisa dutena ere jaitsi du. Gero eta mundu irekiago batean bizi gara, non talentuen mugimenduak aukera bat izan daitezkeen, beti ere guztizko saldo garbia negatiboa ez den bitartean, eta euskal gazteen esperientziak atzerrian “joan eta etorrikoak” diren bitartean.

Ekiteko esparru horretan, itzultzeko aukera erakargarriak sortu behar dira, hau da, kanpoan esperientzia edo prestakuntza jaso eta euren karrera profesionala Euskadin jarraitu nahi duten gazteei kalitatezko enplegua lortzen laguntzeko.

Helburu horretan aurrera egin ahal izateko, hurrengo ekintzak burutzea dago aurreikusita:

- ✓ **Itzuli nahi duten gazteen taldearen nondik norakoak zehazteko eta haien ezaugarriak ezagutzeko analisia egitea.**
- ✓ **Gazteak itzultzeko laguntza-zerbitzuen multzo bateratu bat diseinatzea** gaztea lan aukera zehatz batekin itzul dadin, barneratutako esperientzia baliatuz enpresa proiektu berri bat garatu nahi duten gazteei (ekintzailea) zein besteen kontura lan egiteko asmoa duten gazteei laguntzeko.
- ✓ **Euskal Enpresekin lankidetzarako hitzarmenak ezartzea egoera horretan dauden pertsonak tokian kontratatzea bultzatzeko.**
- ✓ Itzuli diren pertsona horiei **Euskadin enpresa proiektu berriak garatzeko laguntza zehatzak ematea.**
- ✓ Talde horrekin etengabeko **harreman-dinamikak** sortzea, haien egoera, interes, zalantza eta itxaropenei buruzko informazio eguneratua edukitzeko xedearrekin, itzulitakoentzat eskura dituzten laguntza zerbitzu bateratuak ezagutzera ematea, eta itzulitakoen egoeraren jarraipena erraztea.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| 2017a zehar, itzultzea pentsatzen ari diren pertsonen karakterizazio kuantitatibo eta kualitatiboa egitea eta haien beharrak eta espero dutena zehaztea. | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Karakterizaziorik al dago? BAI/EZ</li></ul>  |
| Gazteak itzultzeko diseinatutako laguntza zerbitzuen bitartez 200 gazteri itzultzen laguntzea  | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Laguntza-zerbitzuen bitartez itzultzen diren pertsonen kopurua (2017-2020)</li></ul> |



### 3.7 TALENTU GAZTEA

Talentu gaztea garatzeko apustua pertsonen trebatze eta ahalduntzean oinarritzen da, zeina hezkuntza arloan hasten den eta lan-bizitza osoan zehar hedatzen den. Helburu hau lortzeko, gazteek titulazio ezberdinetan jakintza teoriko edo tekniko sendoak barneratu behar dituzte; gaitasun, trebetasun eta jarrerak garatu behar dituzte; eta praktikara eraman behar dute lan esperientzien bitartez barneratutako jakintza eta gaitasunak.

Jarduera-ildo horretan, atzerrian esperientziarako programetan parte hartzea edo ikerketa, garapen eta berrikuntzari lotutako trebatze-programetan parte hartzea enplegarritasuna hobetu eta talentuaren garapena nabarmen hobetzen duten baliabideak dira. Atzerrian esperientziarako programek, curriculumak aberasteaz gain, ikasitakoa martxan jartzea ahalbidetzen dute, hizkuntza-gaitasunak hobetu eta ikasketari lotutako beste gaitasun batzuk hobetzeaz gain. Bestetik, prestakuntza-ikerketa programek heziketa hobetzen dute enpresek, zentro teknologikoen, unibertsitateek eta bestelakoek garatutako proiektu zehatzetan parte hartuz

Talentu gaztea sortzeko ildo honetan aurrera egiteko, hurrengo neurriak aurreikusi dira:

- ✓ **Gazteei zuzendutako atzerrian esperientziako programak bultzatu eta sustatzea**, nazioartean trebatzea eta esperientzia praktikoa barneratzen laguntzeko eta haien profil profesionalak aberaste aldera. Global Training diru-laguntzak aipatu behar dira hemen, zeinak gazteen nazioen arteko mugikortasuna sustatzeari eta haien profil akademikoari zein profil akademiko eta profesionalari lotutako atzerriko enpresa eta erakundeetako proiektuei dauden zuzenduta, eta Nazioartekoratzeko Diru-laguntzak ere, zeinak tituluarekin lotutako prestakuntza teoriko espezializatua eta atzerriko entitate edo enpresetan trebatze praktikoa nahasten dituzten. Horiez gain, gazteen nazioarteko esperientzia sustatzeko beste hainbat bide ere aurreikusten dira, atzerrian lantokiak dituzten euskal enpresetan praktikak egiteko kontratazio-programa, esaterako.
- ✓ **Zientzia edo teknologia arloan ikerketari lotutako prestakuntza-programa zehatzak garatzea**, ikertzaileen eta teknologoek nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreko enpresen garapen teknologiko eta berrikuntza arloan prestatzeko programa, esaterako, 2 eta 4 urteko beken bitartez ikerketa zentro edo enpresa pribatuatarako.
- ✓ **Nazioartekotzeko esperientzia-programetan zein prestakuntza-ikerketa programa espezifikoetan parte hartzen dutenak lan munduan sartzeko jarraipen sistematizatua egitea**, talentuaren sorreran eta enplegarritasunaren hobekuntzan benetan ekartzen dutena balioesteko.
- ✓ **Hezkuntza arloan kualifikazioa hobetzeko programen sustapena**, ikasleen nazioarteko mugikortasunerako programei Erasmus beka, esaterako, edo Ikaiker beka, ikasleak ikerketa arloan abiarazten laguntzeko unibertsitateko ikerketa taldeen edo ikerketa zentro edo erakundeekin lankidetzan burutuko diren ikerketa proiektuen bitartez.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| 1.800 gaztek atzerriko esperientzia-programetan parte hartzen laguntzea  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Atzerriko esperientziako programetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| 80 gazteren enplegarritasuna hobetzea sektore zehatzetan ikerketa-proiektuetan parte hartuz  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko programetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| Hezkuntza arloan 6.300 gazteren prestakuntza hobetzea nazioarteko mugikortasun programetan edo ikerketa proiektuetan parte hartzearen bitartez.                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Nazioarteko mugikortasuneko unibertsitate-programetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Unibertsitate eremuko ikerketa proiektuetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| Atzerrian esperientziarako programetan eta ikerketa proiektuetan parte hartuko duten gazte parte-hartzaileen lan-munduan barneratzearen jarraipena sistematizatzea | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aldizka txostenak egin eta argitaratzea: BAI/EZ</li> </ul>  |



### 3.8 PRESTAKUNTZA DUALA

Prestakuntza dualak, enplegu eta prestakuntzarako ekintza eta hezkuntza-ekimen mistoen multzo gisa, ikasleek lan ingurune errealetan enpresek sarri eskatzen dituzten gaitasunak barneratzen laguntzen dute eta, ondorioz, haien gaitasunak hobetu eta enpresekin harreman zuzenaren ondorioz enplegua eskaintzeko. Emaita oso onak lortzen dira, prestakuntzarekiko motibazio aldetik zein emaitza akademiko aldetik, hezkuntza eta enpresa sistemen arteko lotura eraginkor gisa.

Euskal prestakuntza dualeko ereduak nahiko ibilbide luzea du lanbide heziketan, eta 20 sektore profesional daude, non lanbide heziketako 1.200 ikasle inguruko hartzen dute parte urtean. Unibertsitatearen ikuspuntutik, prestakuntza duala garatzen hasi da, eta Prozesu eta Produktu Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu gisa zenbait gradu daude erreferentzia gisa (Makina Erreminta Institutuko Ingeniaritza Dualeko Eskola), zeinak 2015-2016 ikasturteak hasita garatzen duen 50 tokiko eskaintza.

Beraz, prestakuntza dualaren errefortzua eta hedapena gazteen eta kolektibo kalteberenen enplegarritasuna hobetzeko gako-faktorea da, eta haien gaitasunen garapena eta enpresek eskatzen dituzten eremu profesionalak egokitzea bizkortzen du, hezkuntza arlotik lanera igarotzea errazagoa izan dadin. Testuinguru horretan, hurrengo neurriak aurreikusi dira:

- ✓ **Prestakuntza dualeko ereduaren sendotzea lanbide heziketaren arloan**, eta ikastetxeen parte hartzea sustatzea eredu dualean bereziki trebatutako irakasleak eskainiz eta eredu dualean eskaintutako zikloen edo espezialitateen mugak zabalduz, eta enpresei aholkularitza eta laguntza eskainiz.
- ✓ **Prestakuntza dualeko ereduaren unibertsitateko sistemara zabaltzea**, pixkanaka gradu eta master dualak barneratuz eta unibertsitateko graduetan enpresa eta erakundeen presentzia areagotuz.
- ✓ **Eredu dualean prestatutako ikasleak lanean hasten direnaren jarraipena**, lanbide profesionalean zein unibertsitatekoan, eredu horren ekarpenak ezagutzeko eta enpresen benetako beharrei egokitzeko zaizkien profil profesionalak garatzen laguntzeko eta hezkuntzatik lanera igarotzea errazteko.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| <p>Lanbide Heziketako ikasleen laneko esperientzia ziurtatzen joatea, hemendik 2020-2021 ikasturtera lanbide heziketako ikasleen % 50k programa horien bitartez euren esperientzia ziurtatu ahal izan dezaten, eta lanbide heziketa dualari lehentasuna emateko</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lanbide heziketa dualeko ikasleen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ lanbide heziketan eredu duala ikasten duten gazteen urteko %</li> <li>▪ Lanbide heziketako goi-maila eta maila ertaineko graduen kopurua eredu dualean (2017-2020)</li> <li>▪ Sare publiko edo hitzartutako zentroetan eredu dualean eskaintzen duten graduako urteko %</li> </ul>   |
| <p>Eredu duala unibertsitateko heziketara barneratzen joatea, eta 2019-2020 ikasturtean unibertsitateko 20 gradu eta masterretan gutxienez 600 ikasle har daitezten</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskal unibertsitatearen sarean eredu dualean ikasten duten ikasleen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Euskal unibertsitateen sarean eredu dualean ikasten ari diren gazteen urteko % (unibertsitateko gradu eta masterren totalarekiko)</li> <li>▪ Euskal unibertsitateen sareko zentroetako batek eskaintako graduen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Euskal unibertsitateen sareko zentroetan eredu dualean eskaintzen duten graduako urteko %</li> </ul> |

### 3.9 GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA


Enplegurako prestakuntza enpleguko politika aktiboetan gako-tresna da, hezkuntza arloan eskaintzen den prestakuntzaren osagarria delako, eta euren bitzita profesionalen zehar lanerako trebatzeko eta gaitasunak zein jakintzak eguneratzeko xedea du. “Enplegurako zubi” bat dela esan dezakegu enplegu-aukeretara iristeko gaitasunak barneratu behar dituztenentzat, trebatze-prozesuak edo prestakuntza berria jasotzeko prozesu luzeak edo laburragoak (“heziketa-pilulak”) sartzen dira hemen.

Besteak beste, gazteek zaila dute “enplegurako zubia” atzitzea, beraz, haien gaitasun profesionalak hobetzera zuzendutako prestakuntza garrantzitsua da hura errazteko. Are zehatzago, gaitasun gutxiago edo haiek enpresa-sareen beharrei egokitu ez daudenean, haien lan errealitate berriei edo ibilbide profesional berriei ekin ahal izateko, prestakuntza sustatu beharra ikusi da, ekonomia digitaleko eta informazio eta komunikazioko teknologia berrien (IKTak) arloan gehienbat.

Hauek dira helburua lortze aldera ezarriko diren neurriak:

- ✓ **Gazteei zuzendutako birziklatze eta bigarren eskuko ekimenak garatzea**, enplegurako prestakuntza-ekintzen esparru orokorrean.
- ✓ **Gazteei zuzendutako kontratatze konpromisodun prestakuntza ekimenak sustatzea**, enplegurako prestakuntza-ekintzen esparru orokorrean.
- ✓ **Enpresek enplegurako prestakuntzaren eremuan parte hartzea sustatzea**, benetako lan inguruneetan zein simulatuetan gazteei zuzendutako esperientzia praktikoak garatzea erraztuz.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| 20.000 gazte trebatzen laguntzea enplegurako prestakuntza-jardueretan parte hartuz (4.1 eta 4.2 jarduera-ildoetan bildutako ekintzetan parte hartuko duten gazteen artean zenbatuta) | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Enplegurako prestakuntza ekintzen bitartez trebatutako gazteen kopurua (2017-2020)</li></ul> |





## 4. Jarduera Esparrua **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA**



## 4.1. LANGABEEN PRESTAKUNTZA

Enplegurako prestakuntza enpleguko politika aktiboetan gako-tresna da, eta pertsonak euren bizitza profesionalean zehar lanerako trebatzeko eta gaitasunak zein jakintzak eguneratzeko xedea du. Azken urteotan, araudia eguneratu da, estatuko esparruaren testuinguruan, eta **langileei enplegua lortzen, hura mantentzen eta lanera itzultzen laguntzeko prestakuntza-sistema sortzen ari** gara, eta baita garapen pertsonala eta sustapen profesionala bultzatzen ere, eta horretarako, jakintza jaso eta eguneratu eta enplegu egonkorrago eta kalitatezkoa lortzeko itxaropena ari gara lantzen. 2016an, eremu autonomikoan dekretu arautzaile berri bat argitaratu zen, 82/2016, zeinaren bitartez Euskadin lanbide heziketa arautzen duena enpleguarentzat, estatuko zuzenbidearen zentzu berean.


Testuinguru horretan, **langabetuen ahalduntzea edo prestakuntza osagarriko prozesuak erraztea, zailtasun gehien dituztenei bereziki**, ezinbestekoak dira enplegarritasuna erraztu eta pertsona horiek lan-munduan txertatzeko. Prozesu horietan egokitzapen-prozesu laburrageoi lotutako prestakuntza-ekintzak zein lan merkatura itzultzeko prestakuntza osagarria behar duten pertsonen zuzendutako prozesu luzeagoak hartzen dituzte, prestakuntza eskaintza zabal eta egokiaren bitartez. Hori guztia **lan orientazioko eta gaitasunen ziurtaginerako prozesuekin lerrokatuta**.

Hauek dira helburua lortze aldera ezarriko diren neurriak:

- ✓ **Lan-merkatuak eskatzen dituen prestaketa eta gaitasunekin lerrokatutako prestakuntza-jarduerak** garatzea, langabetuen prestakuntza, birziklatzea eta bigarren aukera errazteari zuzendutakoak.
- ✓ Enplegurako prestakuntza-ekintzen barruan **zeharkako gaitasunak eta kreatiboak** barneratzeko prozesuak sendotzea, gaitasun digitalak eta atzerriko hizkuntzen gaitasuna garatzearen alde eginez gehienbat.
- ✓ **Prestakuntza eta enplegurako ekintza berritzaile bateratuen** diseinua sustatzea, heziketa, esperientzia praktikoa, lan-merkatuan txertatzeko laguntza, orientazioa, banakako laguntza, ekintzailetza eta lan-munduan barneratzeko bestelako neurriak ematea biltzen duten arreta bateratuko proiektu bereziak garatuz, beste erakunde publiko edo probatuekin batera.
- ✓ **Enplegurako prestakuntzaren eta lan-orientazioko prozesuen arteko lotura** hobetzea, prestakuntza orientazio prozesu bateratu eta pertsonalizatuaren emaitza izan dadin eta helburu espezifikoak lortzeari zuzendutako eta planifikatutako ibilbideen esparruan sartuta daudela bermatzeko.
- ✓ **Profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko txanda-prestakuntzako eredia** barneratzea eta, ondorioz, langileek barneratutako gaitasunak enpresen beharrei egokitzea, 30 urtetik gorakoei lehentasuna emanaz.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| Langabezian dauden 88.000 pertsona gaitzea eta prestakuntza jasotzea erraztea lan-merkatuko beharrei egokitutako enplegurako prestakuntza-ekintzen bitartez. | <ul style="list-style-type: none"> <li>Enplegurako prestakuntza ekintzetan parte hartu duten langabetuen kopurua (2017-2020)</li> </ul>                  |
| 8.000 langabeturen enplegagarritasuna hobetzea prestakuntza eta enpleguko berrikuntzarako ekintza berritzaileen bitartez.                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza eta enplegurako ekintza berritzaileetan parte hartu duten langabetuen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| 2017an txandakatze prestakuntza-eredua barneratzen duten profesionaltasun ziurtagirien deialdia egitea   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Txandakatze prestakuntza-ereduarekin profesionaltasun-ziurtagirien deialdia argitaratzea (BAI/EZ)</li> </ul>      |



## 4.2. KONTRATAZIO KONPROMISODUN PRESTAKUNTZA

Prestakuntza-ekintzak haien ondoren enpresek kontratatzearekin nahastea langabetuak lan-merkatuan txertatzea errazteko formula baliotsua da. Halako ekintzek **langileak enpresetan sartzeko prestakuntza espezifikoa** eskaintzen dute, lan-merkatuan ezin aurki daitezkeen lan-profil zehatzen beharrei erantzuteko, eta trebatze osagarri espezifikoa behar dutelako.

Lan eskaintza horiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, hurrengo jarduera-ildoak aurreikusi dira:

- ✓ **Kontratatze konpromisoarekin prestakuntza-ekimenen garapena suspertzea**, eta enpresek enplegurako prestakuntza sisteman parte hartzea sustatzea haien behar zehatzei egokitutako profil profesionalen garapenaren bitartez.
- ✓ **Kontratatze konpromisoarekin prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen lan-merkatura txertatzearen jarraipena egitea**, lanik gabe dauden pertsonak lanean hasten laguntzeko neurri horiek benetan laguntzen duten ala ez ikusteko.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| 5.000 langabeturen enplegarritasuna hobetzea prestakuntza ekintzen bidez enpresek ondoren kontratatze-konpromisoarekin | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Kontratatze konpromisodun prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li><li>▪ Kontratatze konpromisodun prestakuntza-ekintzen ondorioz kontratatuko dituzten pertsonen kopurua (2017-2020)</li></ul> |



### 4.3. LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

Etengabeko prestakuntzaren eta etengabeko ikasketaren garrantzia balioesteko, bai norberaren mailan bai enpresa mailan eta gizarte mailan ere, langabetuen eta lana duten pertsonak hartuko dira kontuan. **Langileen trebakuntzaren hobekuntzak** gaitasunen eta eraginkortasunaren hobetzea dakar, eta goi-trebatutako profesionalen profilak eta balio erantsia garatzen ditu, lan-merkatuaren behar aldakorrei erantzun egokiak emateko.

Trebatzea bilatzen duten halako ekintzak etengabeko prestakuntza, langileak zein enpresak jakintza eta pertsonen gaitasun profesionali eustean oinarritutako gizarte berrira egokitzea bermatzeko funtsezko tresna gisa sortu dira. Bestetik, prestakuntza-ekintza horiek lehentasuna emango diete RIS3 Estrategiarekin lotutako sektoreetako eremuei eta ekoizpen prozesuekin zein teknologiarekin lotutako aldaketei.


Era berean, **gaitasunak ziurtatu** behar dira bizitza osoan ikasten jarraitzeko eszenatoki berria beharrezkoa delako pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, batez ere talde kaltetuenen kasuan, eta ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko. Araututakoak ez diren ikasketen ebaluazioa eta berrestea gaitasunak bistaratzen ditu eta balioa ematen die, pertsonen autoestimua erantzeko mesedegarria da eta tresna motibatzailea da haien ikasten jarraitzeko.

Etengabeko heziketa sustatzeko esparru horretan, hurrengo ekintzak aurreikusi dira:

- ✓ **Lanean dauden pertsonentzako prestakuntza programak** suspertzea, sektore bereko eta sektoreen arteko beharren detekzioa bultzatuz, eta sektoreen arteko prestakuntza-planak garatzen lagunduz, jardueraren hainbat sektoreekiko horizontalak edo zeharkakoak diren gaitasunekin, eta sektoreko planen inguruan, non gaitasun espezifikokoak bilduko diren.
- ✓ **Linean ikasteko aukerari etekina** ateratzea, bertaratuz eta linean ikasteko aukera ematen duten prozesu mistoen bitartez gehienbat, behar duten pertsonen sarridera erraza ematea errazteko eta sistemaren jasagarritasun ekonomikoan aurre egiteko.
- ✓ **Langileak eta enpresak** gaitasun profesionali eta haien lehiakortasuna mantentzeko etengabeko heziketak duen balio erantziaren inguruan sentsibilizatzea.
- ✓ Ikasketa ez arautuen ebaluazioa eta berrespena sustatzea haien balioaren inguruan sentsibilizatuz enpresa eta langileei, eta arlo horren inguruko informazioa eta orientazioa bateratzea enpleguari zuzendutako sistemaren barruan.
- ✓ **Kaltetuenen taldeen esperientzia profesionala aitortzeko** prozesuekin jarraitzea, prozesuak zabalduz eta beste arlo eta gaitasunetara irekiz, talde hauen galderaren arabera.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| 160.000 langileren enplegagarritasuna hobetzea enplegurako prestakuntzako ekintzetan parte hartzea sustatuz (Planak iraungo dituen 4 urteetan zehar parte hartuko duten langile guztien batura hartuko da kontuan) | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enplegurako prestakuntza ekintzetan parte hartu duten langileen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| 10.000 pertsonak lan esperientziarekin edo araututako heziketa-bideak ez direnen bitartez jasotako gaitasunak ziurtatzen laguntzea   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gaitasun profesionalen ebaluaziorako eta ziurtapenerako prozeduraren bitartez gaitasunak ziurtatuko dituzten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |





## 5. Jarduera Esparrua **LANERATZEKO PIZGARRIAK**


## 5.1 TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU PLANAK

Langabeziaren aurkako borrokan haren kronifikazioa saihestea izan beharko luke lehenetsunetako bat, ondorio garrantzitsuak dituelako pertsonengan (gizartean baztertzeko arriskua, autoestimua-arazoak edo enplegua atzitzeko aukera gutxiago) eta gizarte osoan (desparekotasun handiagoak). Horretarako, **hauskertasun handiko taldeei eta lan-munduan txertatzeko arazo gehien dituztenei zuzendutako lan-aktibazioko neurri espezifikoak barneratu behar dira**, Diru-sarreraren Bermerako Errentaren onuradunak, epe luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langabetuak, gazteak, ezintasunen bat duten pertsonak, etorkinak, egoera irregularrean bizi diren pertsonak, esaterako.

Enplegu Tokiko eta Eskualdeko Planek behar horiei erantzuna ematen dieten tresnak dira, eta **enplegu politikaren tokiko neurria barneratzen dute** eta eragilean, tokiko lokalen eta enpresen arteko lankidetzak eta koordinazioa errazten dute. **Lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan eragiten duten enplegua sortzeari zuzendutako proiektuei** laguntza ematea du xedetzat. Horretarako, lan-munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna areagotuko da haien gaitasunak eta ahalmen pertsonalak eta motibazioa indartzeko aldi baterako lan-esperientziaren bitartez.

Hauek dira helburua lortze aldera ezarriko diren neurriak:

- ✓ **Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak garatzea** sustatzea, tokiko erakundearen partetik zuzenean, edo gizarte erakundeekin lankidetzan, tokiko jarduerak baliagarri edo interesgarriak abian jartzeko eta, ondorioz, lan merkatua piztu eta talde kaltetuenak kontratatzea errazteko, langabezia maila altuenak dituzten eskualde eta udalerriei lehenetsua emanaz.
- ✓ Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen garapenean **enpresen parte-hartzea** sustatzea, eta euskal RIS3an bildutako sektoreko espezializazioaren alde lerrokatu diren proiektuak sustatzea, enplegua sortzeko haien gaitasuna ere indartuz.
- ✓ **Era horretako ekintzen ahalmenaren inguruan sentsibilizatu eta ahalmenak zabaltzea** multzo kaltetuenen artean lan-munduan txertatzeko lagungarri gisa (Diru-sarreraren Berme Errentaren onuradunak, epe luzeko langabetuak, gazteak, 55 urtetik gorakoak, ...).
- ✓ **Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetan parte hartuko duten pertsonen lan-merkatuara txertatzeari jarraipena egitea**, lanik gabe dauden pertsonak lanean hasten laguntzeko neurri horiek benetan laguntzen duten ala ez ikusteko.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak   |
|--|---|
| Urtean lanik gabe dauden 10.000 pertsona lan-munduan txertatzea Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bitartez        | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tokiko zein Eskualdeko Enplegu Planen bitartez kontratatutako pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| 2017Ko deialdiaz geroztik, Enplegurako Tokiko eta Eskualdeko Planen ondorioz lortutako inpaktuaren ebaluazioa egitea | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen urteko ebaluazioak egitea (BAI/EZ)</li> </ul>                      |






## 5.2. EGOERA AHULEKO EDO ENPLEGAGARRITASUN TXIKIAGOKO KOLEKTIBOEN LANERATZEKO PIZGARRIAK EMATEA

Arestian aipatu dugunez, **beharrezkoa da kaltetuenei edo enplegagarritasun txikiagoa duten taldeak bereziki lantzea**, haiengan langabezia kroniko bihur ez dadin eta horrek gizartetik baztertzeko arriskua murrizteko. Beraz, **kontratatorako pizgarriei dagokienez**, pertsona horiei bereziki lagundu behar zaie, ohiko lan-merkatuan txertatzeko, gainerako taldeen baldintza berberetan, 45 urtetik gorakoei, epe luzeko langabetuei eta mendeko pertsoneri laguntza berezia emanaz.

Jarduera-ildo honetan neurri hauek daude aurreikusita:

- ✓ **Lan-munduan txertatzeko laguntza-ekintza bateratuen garapena** sustatzea, besteak beste, informazio, orientazio, aholkularitza, jarraipen eta pertsona horien banakako laguntza lan-merkatuan barnertzeko ibilbidean. Ekintza horiek berezko baliabideen bitartez eta enplegu-agentziekin elkarlanean gauzatuko dira, aldi berean lanertzeko laguntza zerbitzu orokorrak sendotuz.
- ✓ **Lan-munduan txertatzeko eta trebatzeko ekintza tartekatuen** esperientzia pilotuaren diseinua beste eragileekin batera, 45 urtetik gorako langabetuen, epe luzeko langabetuen eta baztertze arriskuan dauden langabetuen enplegagarritasuna areagotzeko zuzendutakoak.
- ✓ **Eremu horretan garatuko diren ekintzetan parte hartuko duten pertsonen lan-merkatua txertatzearen jarraipena egitea**, lanik gabe dauden pertsonak lanean hasten laguntzeko neurri horiek benetan laguntzen duten ala ez ikusteko.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak   |
|--|---|
| Epe luzeko 2.200 langabetu lan-merkatuan txertatzen laguntzea lan-munduan txertatzeko laguntzarako ekintza bateratuen bidez.       | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan-munduan txertatzeko laguntzarako ekintza bateratuetan parte hartuko duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Lan-munduan txertatzeko laguntzarako ekintza bateratuetan parte hartuko duten pertsonen laneratzaren portzentaia (2017-2020)</li> </ul> |
| Laguntzako ekintza bateratuetan parte hartzen duten baztertutako pertsonen % 10 lan-munduan txertatzea laguntza-prozesuen ondorioz | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Laguntza-prozesuen ondoren lan-merkatuan txertatutako laguntza-ekintzetan parte hartu duten baztertze arriskuko pertsonen %</li> </ul>   |




### 5.3 BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN GAIKUNTZA ETA LANERATZEA/GIZARTERATZEA

Bazterte-arriskuan dauden pertsonen trebatzea da talde kaltetuenen enplegarritasuna hobetzeko landu beharreko eremu handienetako bat, non betidanik aurkitu den desabantaila-egoera enpleguarekiko, are gehiago krisialdian. Talde horien barruan, ezgaitasunen bat duten pertsonak eta desabantaila eta bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonak, behar eta arazo bereziak dituzte, zeinak **laguntza-tresna eta -neurriak diseinatzea** eragiten duten lan-merkatuan txertatzea erraztuko dieten trebakuntza eta ahalmenak lortze aldera.


Gizarte sustapenari eta babestutako merkatuari lotutako hainbat esperientzia arrakastatsu badaude, Enpleguko Zentro Bereziak eta Lan-munduan Txertatzeko Enpresak, esaterako, eta beharrezkoa da paraleloan aurrera egiten jarraitzea pertsona horiek lan-merkatu arruntetan barneratzeko.

Testuinguru horretan, hurrengo neurriak aurreikusi dira:

- ✓ **Enpleguko Zentro Bereziei eta Lan-munduan Txertatzeko Enpresei** laguntzea ekoizpen jarduera berriak identifikatzen, non enpresekin lankidetzak sustatu ahal diren, ezintasunen bat duten pertsonak eta desabantaila edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonak lan arruntetan txertatu ahal izateko.
- ✓ **Ezintasunen bat duten pertsonak enpresetako lanean txertatzen laguntzea** haien baldintza fisiko, psikiko edo adimenekoei egokitutako lanpostuak haien eskura jartzeko edo enplegu-ekintzek sustatzeko profesional espezializatuak hauen eskura jartzeko enpresetan haien betekizunak bete ditzaten.
- ✓ **Bazterketa arriskuan dauden beste taldeen laneratzea** suspertzea.
- ✓ Ezintasunen bat duten pertsonen eta desabantaila edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonen **orientazioan eta lan-munduan txertatzeko laguntzan espezializatutako zerbitzuak** garatzea, lan-orientazio ereduaren esparru komunean.
- ✓ Ezintasunen bat duten pertsonen bereziki zuzendutako **enplegurako heziketa-ekintzak** burutzea, enplegurako trebakuntza-ekintzen esparru orokorrean.
- ✓ **Ezintasunen bat duten pertsonak babestutako lanetik lan-merkatu arruntera igarotzen laguntzeko** beste irudi batzuk sustatzea, lantokiak esaterako, eta halako proiektu pilotuei laguntzea baztertzeko arriskuan dauden pertsona-taldeei enplegu-aukera errazteko beste modu batzuk garatzeko.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| Ezintasunen bat duten edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen urteko trebatzea hobetzea Enpleguko Zentro Berezien eta Lanean Txertatzeko Enpresen jardueri laguntza eskainiz, eta haietan 9.500 lanpostu mantenduz | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Urtean enplegurako Zentro Berezien eta Lanean Txertatzeko Enpresen jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| Ezintasunen bat edo baztertzeko arriskuan dauden 800 pertsona lan-mundu arruntean txertatzea erraztea   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Merkatu arrunteko enpresetan kontratatutako ezintasunen bat duten edo baztertze arriskuan dauden pertsonen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |



## 5.4 FAMILIA BIZITZA ETA LAN BIZITZA UZTARTZEKO LAGUNTZAK


Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko laguntzak garatzen badoaz gaur egun, baina, errealitateak erakutsi digu Europar Batasuneko herrialde eta eskualde aurreratuenetatik urruti gaudela oraindik ere. Existitzen diren neurri eta tresna desberdinak gizarte politikekin eta lan harremanekin daude gehienbat lotuta, eta **lotura zuzena dute pertsona gehiagok lan egin ahal izatearekin**, beraz, biztanleria osoaren jarduera-tasa hobetzearekin dago lotuta, emakumeena bereziki, neurri horien erabiltzaile nagusiak haiek baitira.

**Enpresek** betekizun garrantzitsua betetzen dute zentzu horretan, **trakzio eta laguntza betekizunak betetzen baititu bateratze horretan**, bateratzea errazteko neurri berriak ezartzen dituelako eta daudenak gehiago erabiltzea sustatzen duelako, gizonezkoengan gehienbat, arlo horretan oreka handiagoa lortzeko xedearekin.

Benetan bateragarria izan dadin, hurrengo laguntzak aurreikusi dira enpresei lotuta:

- ✓ **Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko laguntza-tresnak sendotzea** bateratzeko neurriak erabiliko dituzten pertsonak -eszedentziak edo jardunaldiaren murrizketa hartzen dutenentzako seme-alabak zaindu edo larritasun handiko egoeratan dituzten senideak zaintzeko, esaterako- ordezkatzeko pertsonak kontrata ditzaten.
- ✓ Lan-bizitza eta Familia-bizitza **bateragarri egitearen aldeko kultura sustatzearen aldeko** sentsibilizazioa eta gaitasunak hedatzea eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen artean bateragarri egiteko neurriak orekatzea.

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzeko enpresen laguntzarekin 5.600 pertsona kontratatzea sustatzea (Planaren 4 urteetan zehar parte hartuko duten pertsona guztiak kontuan hartuta) | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Bateragarri egiteko laguntzen bitartez kontratatutako pertsonen kopurua (2017-2020)</li><li>▪ Bateragarri egiteko laguntzak jasoko dituzten enpresen kopurua (2017-2020)</li></ul> |





## 6. Jarduera Esparrua **RENOVE BIRGAITZE PROGRAMAK**

## 6.1 RENOVE ETXEBIZITZA

Zaharberitze-lanak dira enplegu zuzen gehien sortzen duten jardueretako bat, garraioko azpiegiturek baino askoz ere gehiago, eta enplegu-sorrera zuenean eta ondoriozkoan eragin garrantzitsua dute. Bestalde, birgaitzea da hurbileko enplegu-hobia, non mikroenpresek eta enpresa txikiek pisu handia duten. Etxebizitzaren arloak, besteak beste, etxeen zaharberitze-baldintzak, erabilgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzeari zuzendutako zaharberitze behar handiagoak islatzen ditu eta, aldi berean, auzoak eta udalerriak berritzea ere ahalbidetzen du.

Egun, RENOVE Etxebizitza esparruan sartzen diren programa nagusiak, etxeen bizigarritasuna, segurtasuna eta energia kontsumoa murrizteko eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko etxebizitzaren eta eraikinen zaharberitze eraginkorra egitera daude zuzenduta. Bestetik, hiri ingurunean eta guneko publikoetan irisgarritasuna hobetzeko zaharberitze-ekintzak egiten ere lagunduko dira, eta baita hirigintza zein gizarte arloetan arazo bereziak dituzten eremuetako ondare eta eraikinak zaharberitzeko ekintzak ere.

2017an zehar, aurreikusita dago araua aldatzea, Etxebizitzaren Legearen garapenaren ondorioz, zaharberitze eta hiri berritzeko arloan, eta 2018tik aurrera, dauden neurriak eraldatuko dira. Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa izango da sistemaren muina eta laguntza-programak bateratuko dira. Edonola ere, zaharberitze-jardueren sustapena jarraituko du izaten oinarria, eta hark enpleguan trakzio-efektua eragitea, kontuan izanda etxebizitzaren zaharberitzeak inbertsio pribatuaren osagai garrantzitsua duela.

Testuinguru horretan, hurrengo neurriak aurreikusi dira:

- ✓ **Eraikinak eta etxebizitzak zaharberitzeko pizgarriak**, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa mantendu eta hobetzeko programa bateratu baten bitartez, zeinarekin zaharberitze-lanak sustatu eta erraztuko diren.
- ✓ **Efizientzia energetikoko ekintzak egiten laguntzeko finantza-tresna berriak garatzea**, bai partikularren aldetik bai jabegoen elkarrean aldetik, FEDER 2014-2020 Programaren barruan sartzen direla aprobetxatzeko.
- ✓ **Zaharberitzearen abantaileri eta aukerei buruz hiritarren sentsibilizaziorako eta kontzientziaziorako kanpainak garatzea.**




| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| <p>Etxebizitza eta erakinen zaharberitze-lanen sustapenaren bitartez zaharberitzearen azpisektorean 14.000 enplegu sortzen edo sendotzen laguntzea</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Etxebizitzaren zaharberitze lan babestuari esleitutako zenbatekoa (€, 2017-2020, finantzazio publikoa eta pribatua barne)</li> <li>▪ Zaharberitze-lanen ondorioz sortutako enpleguen kopurua (2017-2020 aldirako, lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren zaharberitze-jardueren ondorioz. Planak iraungo dituen 4 urteetan zehar sortutako enpleguaren batura kontuan hartuta)</li> </ul> |
| <p>Eraikuntzako sektorean jarduten duten 4.000 enpresa-establezimendu sortzen laguntzea, jardueraren areagotzearen eta zaharberitzearen azpisektoreko enpleguaren areagotzearen funtsezko emaitza dira</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enpresa establezimenduen kopuruaren areagotzea 2017-2020 Iturria: EUSTAT, Jarduera Ekonomikoen Direktorioa)</li> </ul>  |
| <p>Zaharberitze-lanen balio ekonomikoa bizilekuen eraikuntzaren azpisektoreko lanen % 45ra iristea lortzea</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zaharberitze-lanen fakturazioaren portzentajearen pisua bizilekuen eraikuntzako azpisektoreko lanen totalarekiko (2017-2020 aldia, Ingurumen, Lurraren Antolamendu eta Etxebizitzako Sailaren Eraikuntza eta Etxebizitzako Estatistikan oinarrituta kalkulatu)</li> </ul>   |

## 6.2 RENOVE HEZKUNTZA

Etxebizitzaren arloan azaldu denaren ildo berean, herri-ikastetxeak zaharberritzeko esku-hartze zuzenak dira zaharberritze beharra duten beste iturri bat eta, ondorioz, sektorean enplegua sortuko dutenak. Esku-hartze horietan azpiegitura berriak edo egun dauden ikastetxeak egokitzeko eskolaratze-beharrek bultzatutako handiagotzeak sartzen dira.

**Euskal herri ikastetxeak hobetzeko laguntza publikoaren ibilbideari jarraiki**, aurreikusita dago urteko aurrekontuen sorta batzuk 2017-2020 aldian halako lanak egiteari esleitzea, ikastetxeetako azpiegiturretan hauteman diren beharren edo eskolaratze-beharren arabera.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| Enpleguaren sorrera edota sendotzea piztea zaharberritzearen azpisektorean herri ikastetxeetako zaharberritze-lanen bitartez | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Ikastetxeak zaharberritzeko aurreikusitako zenbatekoa (€, 2017-2020)</li><li>▪ Zaharberritze-lanen ondorioz sortutako enpleguen kopurua (2017-2020 aldirako, lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, egin diren zaharberritze-jardueren ondorioz. Planak iraungo dituen 4 urteetan zehar sortutako enpleguaren batura kontuan hartuta)</li></ul> |






## 6.3 RENOVE OSASUNA

Herri osasunaren arloak ere behar ditu zaharberritze ekintzak osasun zentro publikoen eta ekipo publikoen eskaintza eta zerbitzu egokiak bermatu ahal izateko. Zentro horietan hobekuntzak egiteko esku-hartzeek zaharberritze-ekintzak zein zentroyen birmoldaketak hartzen dituzte.

**Euskal osasun zentro publikoak hobetzeko laguntza publikoaren ibilbideari jarraiki**, aurreikusita dago urteko aurrekontuen sorta batzuk 2017-2020 aldian halako lanak egiteari esleitzea, hautematen joan diren beharren arabera.

| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| Enpleguaren sorrera edota sendotzea piztea zaharberritzearen azpisektorean herri osasun zentroetako zaharberritze-lanen bitartez | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Osasun zentroak zaharberritzeko aurreikusitako zenbatekoa (€, 2017-2020)</li><li>▪ Zaharberritze-lanen ondorioz sortutako enpleguen kopurua (2017-2020 aldirako, lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, egin diren zaharberritze-jardueren ondorioz. Planak iraungo dituen 4 urteetan zehar sortutako enpleguaren batura kontuan hartuta)</li></ul> |





## 7. Jarduera Esparrua **ENPLEGU PUBLIKOA**





## 8. Jarduera Esparrua

# ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA


## 8.1 ELKARRIZKETA SOZIALA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA

Lan-harremanen eremuan adostea enpleguaren kalitatea hobetzea eta enplegua sortzea nahiko errazten du, eta egonkortasun itxaropenak areagotzen ditu, zeinak maiz enpresen inbertsioko eta hedapeneko erabakien mende egoten diren zuzenean. Lan-harremanen euskal esparrua sendotzen jarraitzea funtsezkoa da adostasun-testuinguru bat sortzeko, era orotako adostasunen birtualitateari onura ateraz eta sektoreko hitzarmenak eta enpresen esparruan sortzen direnak barne.

Gizarte eztabaida sustatzea gako helburua bihurtzen da, ondorioz, eta hurrengo neurriak aurreikusi dira haren inguruan:

- ✓ **Gizarte Eztabaidako Mahaiak 2016ko uztailaren 22an onetsitako konpromisoak** gauzatzea.
- ✓ Gizarte eztabaidaren instituzionalizazioa, Eusko Jaurlaritzako eta parte hartzeko gogoia adierazi duten sindikatu eta enpresa-erakunde nagusienetako hainbat ordezkari osatutako **Gizarte Eztabaidarako Organo Iraunkorra** bultzatuz.
- ✓ **Gizarte agenteek erakundeetan** eta elkarrizketa sozialaren protagonista gisa parte har dezaten sustatzea.
- ✓ **Erakundeen partaidetza-sailen arteko koordinazioa** eta lan-harremanetan eragina duten esparruena (Enplegua eta Gizarte Politikak, Hezkuntza, eta Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak, funtsean).
- ✓ Lan-segurtasun eta lan-osasuneko erakundeen organo iraunkorrak (OSALAN) garatutako **gomendioak aplikatzea**, enpleguko politika aktiboen eremuan (Enplegu Forua) eta hezkuntza arloan (Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua).

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| Gizarte Eztabaidako Mahaian erreferentzia gisa sendotzea, euskal enplegu politika bultzatzeko beharrezkoa den adostasuna lortzeko | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Gizarte Eztabaidako Mahaiaren bilera kopurua (2017-2020)</li></ul> |



## 8.2 GIZARTE ETA ENPRESA ERANTZUKIZUNA SUSTATZEA ETA LANGILEEN PARTAIDETZA ENPRESAN SUSTATZEA

Enpresaren gizarte erantzukizuna da enpresek euren legezko betebeharrak betetzeaz gain, nahiz eta modu aktiboan inguruko garapen ekonomikoan, sozialean eta ingurumenean laguntzen dutena, hainbat arlotan praktika onak burutuz, besteak beste, tokiko enplegua sustatzearen bitartez, zeinak garrantzia handia duen. Ildo berean, langileek enpresetan parte hartzea eta aniztasunaren ikuspegia barneratzeak enpresaren gizarte erantzukizuna garatzen laguntzen du eta enpresetan kudeaketa aurreraturanzko berrikuntza-tresna ere eratzen du.

Enpresen gizarte erantzukizuna gehiago sustatzeko xedez, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Esparruko Plan berri baten garapena aurreikusten da. Plan horrekin hurrengoak lortu nahi da:

- ✓ Kudeaketa arduratsuaren printzipioak egituratuta eta sailen barne-mailan barneratzea agintaritza publikoko arau eta ekintzekin, horretarako **Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plana onartuko da Gobernu Kontseiluan eta** sailen arteko Jarraipen Batzordea onetsiko da.
- ✓ **Gizarte erantzukizun korporatiboari buruzko Gobernu Kontseiluaren Akordioa** eta Sailen arteko Jarraipen Batzordea onestea.
- ✓ **Enpresen gizarte erantzukizuna barneratzeko euskal eredu baten diseinurako** erakunde arteko koordinazioa zuzentzea, eta horretarako enpresen gizarte erantzukizuneko erakunde arteko euskal forua sortzea.
- ✓ **Euskal ekonomia sarean enpresen gizarte erantzukizuna hedatu eta sustatzea eta euskal enpresei neurketa eta hobekuntza metodo berriak barneratzen laguntzea** (enpresen gizarte erantzukizuneko bikaintasun ereduak).

Gainera, **langileek enpresen kudeaketan, onuretan edota jabetza parte hartzea** sustatuko da, hurrengo neurrien bitartez:

- ✓ Langileek enpresetan parte hartzeko aukeren, diseinuaren eta barneratzearen ebaluaziorako ekintzak burutuko dira.
- ✓ Egun langileek enpresen kudeaketan eta kapitalean parte hartzea sustatzeko dauden programak sendotzea, euskal enpresen harreman berrietan berrikuntza-tresna gisa.
- ✓ Langileen parte-hartzearen onuren berri emateko jarduerak burutzea, gizarte eragileen lankidetzarekin.
- ✓ Eredu parte-hartzaileen eta euskal ekonomiari egokitzeko gaitasunaren balioztatze-jarduerak garatzea.



| 2017-2020 helburu espezifikoak   | Adierazleak  |
|--|--|
| <p>Enpresen gizarte erantzukizuna modu egituratuan agintaritza publikoan barneratzea Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plan berria 2017an diseinatu eta onartzen,</p>                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plana onestea: BAI/EZ</li> </ul>   |
| <p>Enpresen gizarte erantzukizunaren sustapenaren koordinazioa errazteko Foru Aldundiekin eta tokiko erakundeekin, enpresen gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko forua sortzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enpresaren gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko eztabaidagunea edo forua sortzea: BAI/EZ</li> <li>▪ Enpresaren gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko eztabaidagunearen bilera kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| <p>Euskal enpresen gizarte erantzukizuna neurtu eta hobetzeko metodoak barneratzen laguntzea (bikaintasun ereduak)</p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enpresaren gizarte erantzukizunearan bikaintasun ereduak barneratzeko laguntzak jasoko dituzten enpresen kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ Enpresaren gizarte erantzukizunearan bikaintasun ereduak barneratzeko laguntzak jasoko dituzten enpresen enplegu kopurua (2017-2020)</li> </ul> |



### 8.3 GIZARTE EKONOMIAREN ALDEKO APUSTUA

Gizarte ekonomia erakundeak osatzen duten pertsonen enpleguarekin eta lan-baldintzekin duten konpromisoa berezko helburua duen eremua da, eta enpleguaren kalitatea hobetzeko bidean islatzen da.

Gizarte ekonomiari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, hurrengo laguntza-ildoak aurreikusi dira:

- ✓ **Gizarte ekonomiaren abantaileri eta aukerei buruzko informazioa eta trebatzea** hezkuntza maila guztietan eta gizarte ekonomiako enpresetan, erakunde ordezkarien bitartez, eta helburu horrekin sortutako programen laguntzarekin.
- ✓ Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta bultzatzea, Euskadin gizarte ekonomia sustatzeko **hitzarmenen bidez, erkidegoko administrazioaren, foru-administrazioaren eta tokikoaren eta erakunde garrantzitsuenen artean.**
- ✓ **Gizarte ekonomiako enpresen agintaritza korporatibo ona sustatzea**, eta haien bazkideen trebakuntza bultzatzea kudeaketa eta ordezkaritza funtzioak bete ditzaten.
- ✓ **Kooperatiben Legea onestea** gizarte ekonomiako eragileek aho batez onartuta.
- ✓ **Gizarte ekonomiaren printzipioak eta balioak gizartean zabaltzea.**
- ✓ Gizarte ekonomian elkarreak sortzea sustatzea, **gizarte ekonomiako enpresen elkarre-erakundeak sendotuz.**





| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| Unibertsitateko eta unibertsitate aurreko hezkuntza-sarean gizarte ekonomiaren inguruko heziketa areagotzea.  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte ekonomiako heziketa ekintzetan parte hartuko duten unibertsitateko eta unibertsitate aurreko ikasleen kopurua (2017-2020)</li> </ul> |
| Gizarte ekonomiako heziketa areagotzea gizarte ekonomiako enpresetan, haien elkarteko erakundeen bitartez   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Heziketa jasoko duten gizarte ekonomiako enpresetako langileen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| Gizarte ekonomiaren presentzia indartzea euskal gizarte ekonomiaren ezaugarriak dituzten erakundeen sarean, komunikabideetan eta eztabaidaguneetan  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Egin diren gizarte ekonomiako eztabaida kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak sustatzea gizarte ekonomia Euskadin sustatzea . Horretarako, gutxienez, euskal agintari publikoen eta euskal gizarte ekonomiako erakunde, mugimendu kooperatibo eta lan elkarte aipagarrien artean asmo onen eta lankidetzarako 2 hitzarmen sinatuko dira | <ul style="list-style-type: none"> <li>Sinatutako hitzarmenen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| Gizarte ekonomiako enpresak halako enpresen kudeaketaren betekizun berriei egokitzen laguntzea: sektoreko entitate aipagarrienek informazio eta trebakuntza jarduera espezifikoak burutuko dituzte.   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Korporazio-gobernuko eredu berria barneratzen duten enpresen kopurua (2017-2020)</li> </ul>  |
| Kooperatiben Legea onestea 2018an   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kooperatiben Legearen onespena (BAI/EZ)</li> </ul>   |

## 8.4 KALITATEKO ENPLEGUA, ENPLEGU SEGURUA

Kalitatezko enplegua eskaintzen duen lan-merkatua lortzea funtsezkoa da hurrengo urteotan aurrera egiten jarraitzeko. Hori dela eta, adostasunean eta lankidetzan oinarritutako lan-harremanen esparrua lortu beharra dago, non aldi baterako lanak eta nahi ez den partzialtasuna murrizten eta lan-segurtasun eta lan-osasunean aurrera egiten jarraitu behar den. Testuinguru horretan, negoziazio kolektiboa sustatzea, lan-iruzurraren aurka borrokatzea eta lantoki osasuntsu eta seguruak sortzea dira kalitatezko enplegua bermatzeari zuzendutako ildo garbiak.

Helburu horrekin, hurrengo neurriak aurreikusi dira:

### ✓ **Negoiazio kolektiboaren sustapena:**

- **Lan-harremanen Euskal Sistema sendotzea**, Lan-harremanen Kontseiluaren (CRL) eta Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluren (CES) jarduerak bultzatuz.
- **Autonomien hitzarmenak gailentzen dituen 2017ko urtarrilaren 17ko Hitzarmen Interprofesionala martxan jartzea**, eroritako hitzarmen kolektiboak berritzea bultzatuz.
- **Lan-gatazketan bitartekaritza sustatzea**, hitzarmen kolektiboko edukiak eguneratzea eta taldeko negoziazioa egiteaz arduratuko diren pertsonak trebatzea.
- **Haien hitzarmenen arabera obligazioa duten emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako egindako Planen kontrola burutzea** hitzarmen kolektiboaren bitartez.


### ✓ **Lan-segurtasunarekin eta lan-osasunarekin konpromisoa sendotzea:**

- Prebentzio-delegatuen trebakuntza hobetzea.
- ETEetan ikerketa eta prebentzioko kanpaina espezifikoak garatzea, eta ekoizpen prozesu berriak garatzeari lotutako edo langileen mugikortasun handiagoarekin lotutako gaitz ez oso arruntak gertatzeari lotutako arriskuen inguruko ikerketa sustatzea.
- Prebentzioaren kultura hedatzea lehiakortasuna hobetzeko elementu gisa, enpresekin koordinatuta.
- Gizarte eragileekin lankidetzatza eta eztabaida sustatzea laneko segurtasun eta osasunaren eremuan helburu komunak adostu eta onesteko.



✓ **Lan-iruzurraren aurkako borroka sendotzea:**

- **Lantokietan lan-baldintzak hobeto zaintzea:** segurtasun ikuskaritzak egitea istripu-arrisku maila altua duten sektoreetan; enpresek lan arriskuen prebentzioan duten obligazioak egiaztatu eta kontrolatzea, lantokietan segurtasuna eta osasuna barningaratzeko ikuspegia sustatuz; eta lantokiak partekatzen dituzten enpresen lan-arriskuen arloan koordinazio neurriak egiaztatzea (azpikontratatzaren denean bereziki).
- **Lan-ikuskaritza zerbitzuak sendotzea** Lan Arriskuen Prebentzioko Azpikuzkarien kopurua areagotuz.
- **Ikuskaritza lanetan genero ikuspegia bultzatzea** Emakunde- Instituto Vasco de la Mujer erakundearekin sinatutako indarrean dagoen hitzarmenaren bitartez.
- **Lan-iruzurraren aurkako borrokari zuzendutako ikuskaritza-kanpainak indartzea:** burututako lan-ikuskaritzen emaitzak hizkera ulergarrian zabaltzea, gardentasun-konpromisoaren zati gisa; kontratazio eta lanaldi arloko kanpainak egitea (lanaldi partzialeko kontratuen kontrola, trebatze-kontratuen edo legezkoak ez diren lanordu estren kontrola); legez kanpoko langileak uztearen aurkako kanpainak; eta lanpostuak gaitasun desberdineko pertsoneri legez kanpo gordetzearen kontrola.
- Sindikatze-maila txikia duten taldeetan ikuskaritzak egin ahal izateko neurriak garatzea: **Lan-iruzurraren aurkako Hiritarraren Postontzia jarriko da.**



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| Hitzarmen kolektiboen % 75ko estaldura lortzea  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ 2020 bukaeran hitzarmen kolektiboak dituzten langileen kopurua</li> <li>▪ 2020 bukaeran hitzarmen kolektiboak dituzten langileen %</li> </ul>  |
| Urteko trebatze-ekintza bidez Prebentzioko Delegatuek beharko dituzten trebatze-ekintzak bermatzea  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Trebatutako Prebentzioko Delegatuen kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| Lan-arriskuen prebentzioari buruzko jakintza sustatzea enpresen lehiakortasuna hobetzeko orduan   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Komunikabide orokorretan eta espezifikoetan kontzientziazioko urteko kanpainak egitea (BAI/EZ)</li> </ul>                                      |
| Lan istripuen kostu ekonomikoari buruzko ikerketa egitea  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan istripuen kostu ekonomikoari buruzko ikerketa egitea (BAI/EZ)</li> </ul>   |
| Lantokien lan-baldintzak hobeto zaintzea: lan-ikuskaritzak eta ekintzen % 50 areagotzea   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lantokietan egindako ikuskaritza kopurua (2017-2020)</li> <li>▪ 2016rekiko ikuskaritzaren areagotze %</li> </ul>                               |
| Ikuskaritza kanpainen emaitzak hobetzea kontratazio eta lanaldiari dagokionez, aldi baterako kontratuen % 100 aztertuz  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Berrikusitako kontratuen kopurua (2017-2018)</li> <li>▪ Bihurtutako kontratuen % aztertu diren guztiekiko (2017-2020)</li> </ul>               |
| Urtero, egindako ikuskaritza-kanpainen emaitzak gizarte eragileei eta gizarteari jakinaraztea   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikuskaritza-kanpainen emaitzak aldizka zabaltzea: BAI/EZ</li> </ul>  |
| Sindikatzeko-maila txikia duten taldeei ikuskaritzak egin ahal izaten laguntzea: Lan-iruzurraren aurkako Hiritarraren Postontzia jarriko da 2017an.   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Jasotako salaketa kopurua (2017-2020)</li> </ul>   |
| Enpresako eragileei eta gizarte-eragileei berdintasun arloan sensibiltzatzea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuneko Planak 250 langile baino gutxiagoko enpresetan barneratzeko hitzarmen kolektiboaren bitartez | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana edukitzeko obligazioa barneratuta duten euskal eremuko hitzarmen kolektiboen kopurua</li> </ul> |





## 9. Jarduera Esparrua

# EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBEKUNTZA

## 9.1 LANBIDE ERABERRITZEA ETA MODERNIZATZEA

Egungo Euskal Enplegu Sistemaren hobekuntza, eraginkortasunari, efizientziari eta balio-zerbitzuen sorrerari dagokienez, datozen urteotan jorratu beharko den oinarritzko helburuetako bat da. Aldaketa hauen xedea izango da euskal enplegu-politikarako tresna eragile bat lortzea **pertsonen eta enpresen beharrekiko orientatuago dauden zerbitzuak** eskaintzen dituen eta ekonomiaren eta hezkuntzaren sustapenerako politikekin **erabat koordinatutako enplegu-politika** duena.

Horrek dakar, alde batetik, pertsonen emandako zerbitzuen pertsonalizazioa areagotzea, ibilbidearen kontzeptua azpimarratuz eta lan-munduan txertatzeko laguntza-zerbitzu pertsonalizatua enplegu-politika aktiboen ildo nagusi bilakatuz, era berean lan-merkatura sartzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboek lehentasuna emanaz. Bestalde, enpresei eskainitako zerbitzuak ere sustatu egin behar dira, eskaintza lan-merkatuko benetako eskariaren arabera doitu ahal izateko.

Testuinguru honetan, ondorengo jardura-neurriak aurreikusi dira:

- ✓ Egungo bulego-sarearen analisia oinarri hartuta, **arreta-eredu berri bat** diseinatzea. Horri esker, bulego "estandar" baten eredua definitu ahalko da, arreta-eta deribazio-prozesua barne hartuta eta alderdi fisikoa eta birtuala kontuan hartuta, eta eredu berria sare guztira zabaltzeko ezarpen progresiboaren plangintza egingo da.
- ✓ Kolektibo eta pertsona bakoitzaren beharren eta errealitateen arabera lan-munduan txertatzeko laguntza pertsonalizatua eta orientazioaren espezializazioan oinarritutako **esku-hartze eredu berri bat** ezartzea ("enplegu-eskatzaileei zuzendutako zerbitzu-sorta"). Eredu honek desgaitasunen bat duten pertsonen eta lan-mundura sartzeko zailtasun gehien dituzten eta/edo lan- eta gizarte-baztertzeko arriskuan dauden pertsonen lehentasuneko arreta integral eta espezializatua eskainiko die.
- ✓ **Enpresei zuzendutako zerbitzuak** garatzea, enpresengana hurbiltzea eta enpresek etengabeko harremana mantentzea ahalbidetzen duen orientazio proaktibo batetik, beren dinamikak eta beharrak hobe ezagutzeko eta enpresen aurreikuspenen arabera balio egokia ematen dieten zerbitzuak enpresen eskura jartzeko.
- ✓ **Sareko lana** indartzea, erakundeen arteko koordinaziorako eta sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzarako harreman-eredu bat definituz, hartara eragile bakoitzaren sendotasunei, ezaguerei eta informazioari etekin handiena ateratzeko eta zerbitzuen pertsonalizazioa eta pertsona bakoitzaren ibilbidearen jarraipena erraztu ahal izateko.



| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| 2018. urtean zehar arreta-eredu berriaren ezarpena zabaltzea Lanbide bulego-sare osoari.  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Arreta-eredu berria duten bulegoen kopurua (2017-2020 aldia).</li> <li>▪ Sareko guztirako bulego kopuruarekin alderatuta, arreta-eredu berria duten bulegoen ehunekoa (%) (2017-2020).</li> </ul>   |
| Enplegu-eskatzailerei laguntza integral eta pertsonalizatua ematea.   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Txertatze-ibilbide pertsonalizatueta parte hartzen duten pertsonen kopurua (2017-2020 aldia).</li> <li>▪ Langabezian dauden guztirako pertsona kopuruarekin alderatuta, txertatze-ibilbide pertsonalizatueta parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (%) (2017-2020 aldia).</li> </ul> |
| Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa izatea.  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroaren garapena: BAI/EZ</li> </ul>   |
| Lankide publiko eta pribatuekin eta gizarte-zerbitzuekin mantendutako harremanetarako protokoloak sortzea.                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Protokolo adostu bat duten eragileen kopurua (2017-2020 aldia).</li> <li>▪ Guztirako esku-hartzaile kopuruarekin alderatuta, eragileen ehunekoa (%) (2017-2020 aldia).</li> </ul>   |
| Lanbide zerbitzurako bulego estandar berri baten eredua diseinatzea eta bulego hori Lanbide bulegoen sare osora hedatzeko plana ezartzea. | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bulego estandarren eredu berrira egokitutako bulegoen kopurua (2017-2020 aldia).</li> <li>▪ Sareko guztirako bulego kopuruarekin alderatuta, bulego estandarren eredu berrira egokitutako bulegoen ehunekoa (%) (2017-2020 aldia).</li> </ul>   |



## 9.2 ENPLEGU ARLOKO BEHAKETA ETA PROSPEKZIO LANA HOBETZEA

Aurrerapenaren kontzeptua hobetzea ezinbestekoa da lan-merkatuan eta merkatu horrekin lotutako ekoizpen-alorretan gertatzen diren aldaketa eta beharretarako egokiak diren erantzunak diseinatu eta horien plangintza egin ahal izateko. **Behaketa eta prospektiba** funtsezko elementuak dira aurrerapen-lan hori burutu ahal izateko, izan ere, elementu horiek ahalbidetzen dute enpleguaren eta prestakuntzaren inguruko joerak, aukerak eta beharrak antzematea, enplegu-politiken diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako balio handia duten informazioa eta ezaguerak sortzeaz gain.

Horrek nahitaez dakar prospektibarekin lotutako tresna eta alor publiko eta pribatuen arteko **koordinazioa**, Lanbideren jardueratik eratorritako **informazio-fluxuen integrazioa sistematzatzen** den aldi berean, bai eta enpleguaren, prestakuntzaren eta jarduera ekonomikoaren alorrekin lotutako bestelako eragileen informazioa ere.

Alor honetarako aurreikusi diren jarduera-neurri nagusiak hauek dira:

- ✓ Future Lan tresna sendotzea, lan-merkatuko joerak, aukerak eta beharrak antzemateko metodologia alderatuak garatu eta praktikara eramateko **informazio-eta prospekzio-sistema integratu** gisa, honela euskal enpresen langile-eskariari buruzko eta eskaera eta eskariaren bat ez etortzeen inguruko informazio goiztiarra izatea ahalbidetuz.
- ✓ **Prospektiba-tresnen arteko koordinazioa** indartzea, Future Lan tresna ildo nagusi gisa izanda eta tresna publiko nahiz pribatuak barne hartuta, enpleguaren, prestakuntzaren eta jarduera ekonomikoaren alorretan.
- ✓ Enplegu-politikekin lotutako zerbitzu eta programen eta burututako programen inpaktuaren **ebaluazioaren emaitzak biltzeko sistema** bat garatzea.
- ✓ **Informazioa eta ezaguerak partekatzeak dakartzan balioaren eta aukeren** inguruko sentsibilizazioa, enpresengandik eskuratutako informazioari etekin handiena ateratzeko eta antzeko informazio-eskaera errepikatuak ekiditeko xedea duten koordinazio dinamika publiko-pribatuak sortuz. Halaber, 2030. urterako Future Lan ikuspegia osatuko duten datu kualitatiboak sortuko dira honekin. Zentzu horretan, Future Lan ekimenak Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin koordinatutako ekimenak garatzea aurreikusi du, klusterren eta elkarte sektorialen informazio prospektibo kualitatiboa eskuratzeko xedearekin.
- ✓ Lortutako **ezaguerak kudeatzeko eta** eragileei eta gizarteari **hedatzeko eredu bat** diseinatzea.
- ✓ Lan-merkatuan adituak diren eskualdeko eragile adituekin parte-hartze eta alderatze "nodoetan" lankidetzan aritzea, esaterako, Nazio Batuek koordinatzen duten Millenium proiektuan, lan-merkatuaren etorkizuna eta lurralde-mailan izango duen inpaktua auresateko helburua duena.





| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| <p>Enpleguaren alorreko behaketa eta prospektiba lana sustatzea Future Lan tresna indartzeari esker</p>                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Future Lan tresnaren alderdi kualitatiboa abian jartzea (BAI/EZ).</li> <li>▪ Bi urtean behin eredurako ezarritako datu kuantitatiboak aztertzea (BAI/EZ).</li> </ul> |
| <p>Enpleguaren alorreko programen eta deialdien ebaluazioetatik ateratako informazioa eta emaitzak biltzeko eredu bat diseinatzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Informazioa eta emaitzak biltzeko eredu sortzea (BAI/EZ).</li> </ul>   |
| <p>Prospekzio- eta alderatze-ekintzen garapena areagotzea, enpleguaren alorreko bestelako eragile adituekin lankidetzan</p>           | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Benchmarking-txostenen eta EAEari egokitutako Millenium proiektuaren emaitzen kopurua.</li> </ul>  |



### 9.3 ENPLEGUARI LOTUTAKO ZERBITZUEN ETA PROGRAMEN EBALUAZIO SAKONAGOA EGITEA

Politika, programa eta zerbitzu publikoen ebaluazioa **kudeaketa publiko aurreratuaren** gakoetako bat da. Izan ere, esku-hartze publikoa baloratzea ahalbidetzen du, erabaki-prozesuak optimizatzen ditu eta akatsak antzeman eta zuzentzeko aukera ematen du, jarduera publikoen berrikuntza sustatzeaz eta baliabideen esleipenaren eta erabileraren eraginkortasuna areagotzeaz gain.

Honela, enpleguarekin lotutako **zerbitzu eta programen ebaluazio-sistemaren hobekuntzari** esker, balio handiko informazioa eskuratuko da **Euskal Enplegu Sistemaren eraginkortasuna eta efizientzia** hobetzeko eta **arrakasta edo arrisku faktoreak identifikatzeko**, eta baita enplegu-eskatzaileen, enpresen eta alor honetako eragile guztien beharrei erantzun egokia ematea ahalbidetzen duten enplegu-politikak, -programak eta -zerbitzuak diseinatzeko ere. Betiere **gardentasunaren printzipioari** jarraituz eta, ondorioz, informazioa eragile interesdunentzat eta gizarte osoarentzat modu irisgarri eta ulergarrian eskura jarritz.

Helburu hau lortzeko bidean aurrera egin ahal izateko, honako jarduera-neurriak aurreikusi dira:

- ✓ Ebaluaziorako erabilitako **baliabideak indartzea**, enplegu-politika, -zerbitzu eta -programa bakoitzak ebaluazioa barne izan dezan sustatuz, politika, zerbitzu edo programa horren diseinuaren eta abiaraztearen derrigorrezko fase edo baldintza gisa.
- ✓ **Zerbitzu edo programa guztien ebaluazioa** sustatzea, bereziki erabiltzaile bakoitzeko kostu altua duen horietan, esaterako, enplegurako prestakuntza.
- ✓ **Emaitzen ebaluazioaren kultura** bultzatzea, inpaktua, asebetetzea, eraginkortasuna edo efizientzia neurtzen dituzten adierazleak pixkanaka abian jarritz, hartara etorkizuneko jardueren lehentasuna ezartzeko informazio esanguratsua lortuz.
- ✓ **Gardentasunaren printzipioa** indartzea enplegu-zerbitzuen eta -programen ebaluazioan, informazio ulergarri eta azkarra eskainiz kanal edo euskarri irisgarrienen bidez.

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak  |
|---|--|
| Emaitzen ebaluazioa enplegu-programa eta -zerbitzu guztietara hedatzea.                 | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Ebaluatutako programak eta zerbitzuak identifikatzea (2017-2020 aldia).</li><li>▪ Asebetetze-mailaren ebaluazioa burutzen zaien zerbitzuen ehunekoa (%) (2017-2020 aldia).</li></ul> |
| Enplegu-programa eta -zerbitzu nagusien ebaluazioen emaitzak modu ulergarrian hedatzea. | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Burututako ebaluazioen hedapen orokorra (BAI/EZ).</li></ul>  |





Zeharkako Esparrua  
**EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA**

Gure lan-esparruan emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez azken urteotan gertatu diren ageriko aurrerapenen arren, oraindik ere badira desberdintasun garrantzitsuak, bereziki jarduera-tasari, tenporaltasunari, lanaldi partzialeko kontratazioari, ordainsariei eta zuzendaritza-lanpostuetarako sarrerari dagokienez, gure ekonomiaren sektore ekonomikoetako parte-hartze maila desberdinez gain, sektore industrialerako sarreran batez ere.

Errealitate hori kontuan hartuta, Planak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko jarduera-ildo berezi bat du barne, honako neurrietan zehaztuko dena:

- ✓ **Plana osatzen duten neurri guztietan genero-ikuspegia barne hartzea**, ondorengo jarduera-ildoetan:
  - Beharren diagnostikoa.
  - Neurrien definizio estrategikoa eta plangintza.
  - Neurrien jarraipena eta ebaluazioa.
- ✓ **Ekintza positiboko irizpideak sartzea**, betiere uste bada irizpide horiek generoarekiko dauden desberdintasunak murrizten lagun dezaketela gure lan-merkatuarekin lotutako alorretan edota gure lanbide heziketaren sisteman.
- ✓ **Emakumeen enplegagarritasuna hobetzeari lotutako neurri espezifikoak sortzea**, beharrezkoak balira.

| 2017-2020 helburu espezifikoak  | Adierazleak   |
|---|---|
| Gutxienez ere Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako pertsonen %40 emakumeak izan daitezen bermatzea.                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tokiko Enplegu Planen bidez kontratatutako emakumeen kopurua (2017-2020 aldia).</li> <li>▪ Tokiko Enplegu Planen bidez kontratatutako guztirako pertsonen kopuruarekin alderatuta, kontratatutako emakumeen ehunekoa (%) (2017-2020 aldia).</li> </ul>   |
| Ekintza positiboa indartzea, gutxienez ere %10eko areagotzeekin laguntza ekonomikoetan eta kontratazioa eta ekintzailtza sustatzeko programa jakinetan. | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ekintza positiboko neurriak dituzten kontratazioa sustatzeko programen bidez kontratatutako emakumeen kopurua (2017-2020 aldia).</li> <li>▪ Ekintza positiboko neurriak dituzten ekintzailtza sustatzeko programen bidez sortutako eta emakumeek zuzendutako enpresa berrien kopurua (2017-2020 aldia).</li> </ul> |





**Jarduera-ildo bakoitzaren erantzule diren sailak eta zuzendaritzak**

# Jarduera-ildo bakoitzaren erantzule diren sailak eta zuzendaritzak

| JARDUERA-ILDOAK   | SAIL ERANTZULEA                            | ZUZENDARITZA ERANTZULEA                                    |
|---|--|--|
| 1.1- Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa eta zailtasunak dituzten enpresa txiki eta ertainei arreta | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak        | Garapen Industriala  |
|   | Ogasuna eta Ekonomia                       | Finantza Politika eta Erakundeen Baliabideak               |
| 1.2- Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea  | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa       | Merkataritza   |
| 1.3- Landa- eta kosta-inguruan enplegua sustatzea   | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak        | Landa eta Kostalde Eremuen Garapena eta Europako Politikak |
| 1.4- Gizarte-ekonomian enplegua sustatzea   | Lana eta justizia                          | Gizarte Ekonomia   |
| 1.5- Turismo-sektoreko enplegua sustatzea   | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa       | Turismoa   |
| 1.6- Enplegua berariaz sustatzea egoera ahulagoan dauden eskualde eta udalerrietan                      | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak        | Garapen Industriala  |
| 2.1- Ekintzailtza berritzailea eta intraekintzailtza sustatzea  | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak - SPRI | Garapen Industriala  |
|   |  | Ekintzailtza, Berrikuntza eta Informazio Gizartea - SPRI   |
| 2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailtza sustatzea   | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Lanbide - Enplegua   |
| 3.1- Hezkuntzatik lanera igarotzea  | Hezkuntza                                  | Lanbide Heziketa   |
|   |  | Unibertsitateak  |
| 3.2- Lehen Aukera Programa  | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Lanbide - Enplegua   |
| 3.3- Gazte ekintzaileei laguntzea   | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Lanbide - Enplegua   |
| 3.4- Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak  | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Lanbide - Enplegua   |
| 3.5- Eraberritzeko edo erreleborako programak   | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Lanbide - Enplegua   |
| 3.6- Gazteen itzulera sustatzea   | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Gazteria   |
| 3.7- Talentu gaztea   | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak        | Nazioartekotzea  |
|   | Beste sailak                               | Talentu gaztearen ekimenekin lotutako beste zuzendaritzak  |
| 3.8- Prestakuntza duala   | Hezkuntza                                  | Lanbide Heziketa   |
|   |  | Unibertsitateak  |
| 3.9- Gazteen enplegurako prestakuntza   | Enplegua eta Gizarte Politikak             | Lanbide - Prestakuntza                                     |



| JARDUERA-ILDOAK  | SAIL ERANTZULEA                                 | ZUZENDARITZA ERANTZULEA  |
|--|---|--|
| 4.1- Langabeen prestakuntza  | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide - Prestakuntza   |
| 4.2- Kontratazio-konpromisodun prestakuntza  | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide - Prestakuntza   |
| 4.3- Landunentzako prestakuntza  | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide - Prestakuntza   |
| 5.1- Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak  | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide - Enplegua   |
| 5.2- Egoera ahuleko edo enplegarritasun txikiagoko kolektiboen laneratzeko pizgarriak ematea   | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide - Enplegua   |
| 5.3- Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratzzea/gizarteratzea            | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide - Enplegua   |
| 5.4- Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak                                      | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Familia  |
|  |   | Lanbide - Enplegua   |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza  | Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza | Etxebizitza  |
| 6.2- RENOVE Ikastetxeak  | Hezkuntza                                       | Baliabide Materialak eta Azpiegiturak                                  |
| 6.3- RENOVE Osasun-zentroak  | Osasuna   | Osakidetzak  |
| 7.1- Administrazio publikoak eraberritzea  | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua           | Funtzio Publikoa   |
|  | Beste sailak                                    | Lan Eskaintza Publikoak kudeatzeko gaitasuna duten beste zuzendaritzak |
| 8.1- Elkarriketa soziala eta parte-hartzea sustatzea   | Lana eta justizia                               | Lana eta Gizarte Segurantzak   |
| 8.2- Gizarte- eta enpresa-erantzukizuna sustatzea eta langileen partaidetza enpresan sustatzea | Lana eta justizia                               | Gizarte Ekonomia   |
| 8.3- Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua  | Lana eta justizia                               | Gizarte Ekonomia   |
| 8.4- Kalitateko enplegua, enplegu segurua  | Lana eta Justizia - Osalan                      | Lana eta Gizarte Segurantzak - Osalan                                  |
| 9.1- Lanbide eraberritzea eta modernizatzea  | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide  |
| 9.2- Enplegu-arloko behaketa eta prospekzio-lana hobetzea                                      | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide  |
|  | Beste sailak                                    | Beste zuzendaritzak  |
| 9.3- Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea                   | Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Lanbide  |
|  | Beste sailak                                    | Beste zuzendaritzak  |





## ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

## 8- Baliabide ekonomikoak



## Baliabide ekonomikoak

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren aurrekontuaren estimazioa **1.180 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako**, esparru eragileen arabera honela banatuak (\*):

|                   |   |        |
|-------------------|---|--------|
| 1. Eremu eragilea | ETEak, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA | 63 M€  |
| 2. Eremu eragilea | EKINTZAILETZA SUSTATZEA                     | 86 M€  |
| 3. Eremu eragilea | GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPENA               | 101 M€ |
| 4. Eremu eragilea | ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA                    | 282 M€ |
| 5. Eremu eragilea | LAN MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZAK           | 301 M€ |
| 6. Eremu eragilea | RENOVE ERREHABILITAZIO-PROGRAMAK            | 347 M€ |

(\*) 7. (Enplegu publikoa), 8. (Enpleguaren kalitatearen hobekuntza) eta 9. (Euskal Enplegu Sistemaren hobekuntza) esparru eragileak ez dira kontuan hartuko aurrekontuari dagokionez, izan ere, neurri handi batean 1. kapituluko aurrekontuarekin bat datoz eta kapitulu hori ez dago gainera esparru eragileen barne.

2017rako aurrekontuaren estimazioa 290 milioi eurokoa da, 2017ko EAEko Aurrekontu Orokorretako 210. Programan (Enplegu Plana) jasotako aurrekontuko partiden arabera, bertan horien xehetasunak ikus daitezke. 2018, 2019 eta 2020 ekitaldietarako aurrekontuen aurreikuspeni dagokienez, batez besteko %1,2ko hazkundera estimatu da, betiere ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen onarpenaren mende. Mobilizatutako baliabide pribatuen kuantifikazioa Planaren jarraipen- eta ebaluazio-dinamiken atal gisa jasoko da (ikus Planaren Gobernantza Eredua - Kontuak ematea atala).





## ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

## 9- Aurreikusitako inpaktua

# Aurreikusitako inpaktua

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak honako inpaktuak aurreikusi ditu Euskadiko lan-merkatuan:

- Enplegua sortzea.
- Dagoen enplegua mantentzea, bereziki zailtasunak dituzten sektoreen eta enpresen kasuan.
- Enplegarritasuna areagotzea.
- Enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Euskal Enplegu Sistema hobetzea, bereziki Lanbidetik eskainitako zerbitzuen kasuan.

Ondoren ageri dira Planak, 2017-2020 aldirako, aurreikusi dituen inpaktu kuantitatibo nagusiak.

**Laguntzei esker  
sortutako 45.000  
lanpostu**

**Laguntza jaso  
duten  
6000 enpresa berri.**

**20.000 gazte  
lan-aukera batekin.**

Enpresa berrien sorrerari esker sortutako **12.000** lanpostu.

Etxebizitzan eta ekipamendu publikoen errehabilitaziorako laguntza publikoekin lotutako **15.000** lanpostu.

Kontratazioa sustatzeko laguntzen bidez kontratatutako **18.000** pertsona.

**5.000** mikroenpresa eta autonomo berri.

**1.000** enpresa berritzaile berri.

**3.000** pertsona gazte beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako kontratatuak, lehen lan-aukera jasotzeko (Lehen Aukera).

**5.000** gazte hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio esperientzia praktikoarekin.

**3.500** ekintzaile gazte berri.

**2.500** gazte Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatuak.

**3.200** gazte euskal administrazio publikoko pertsona erretiratuen lanpostuak betetzeko.

**400** gazte sektore pribatuko txanda-kontratu onuradun.

Atzerrian esperientzia eta prestakuntza eskuratu duten **200** gazteren itzulerarako laguntzak.

**1.800** gazte enpresetan esperientzia praktikoa hartzeko beken onuradun.

**400** gazte aukera-esparru espezifikoetan sartu eta profesionalki garatzeko laguntza-programen onuradun.





## ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 10- Planaren gobernantza

# Koordinazioa eta parte-hartzea

Plana parte-hartzea oinarri hartuta eraiki den modu berean, printzipio hori Planaren gobernantza zehar ere mantentzea beharrezkotzat jo da. Horretarako, honako koordinazio eta parte-hartze instrumentuak ezarri dira, Enplegu Plan honetan aurreikusitako ekintzekin lotutako hobekuntza-proposamenak jaso eta eztabaidatzea ahalbidetuko dutenak, Planaren koordinazio zuzena bermatzeaz gain:

|                           | SAILARTEKO BATZORDEA   | EUSKADIKO GIZARTE EZTABAIDAKO MAHAIA  | ENPLEGU FOROA   |
|---------------------------|--|---|---|
| <b>BETEKIZUNA</b>         | Planaren barne dauden ekintzak dituzten Gobernuako sailen eta erakundeen arteko koordinazioa.  | Izaera aholku-emailea eta kontrastatzekoa, baita gizarte-adostasunekoa ere.   | Izaera aholku-emailea eta kontrastatzekoa.  |
| <b>OSAERA</b>             | Planean inplikazio zuzena duten Sailak eta Zuzendaritzak (ikus atxikitako taula), Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin eta Lehendakaritza Sailaren koordinazioarekin (Lehendakaritza Idazkaritza Nagusia).  | Mahai horretan ordezkaturako enpresako eta sindikatuetakoa eragileak.   | Erakundeetako, enpresa-elkarteetako, klusterretako, sindikatuetakoa, hezkuntza-erakundeetako eta gizarte-erakundeetako ordezkariak, unibertsitate-adituak, etab.  |
| <b>FUNTZIOAK</b>          | Planaren inplementazioaren egoera zein den aztertze lan- eta hausnarketa-gunea, haren jarraipena eta emaitza nagusiak aztertzeak, eta hura hedatzeko ematen diren urratsak alderatzekoak, betiere abian jarritako neurrien eta programen koordinazio eraginkorra bermatuz. | Planaren inplementazioaren egoera zein den aztertze lan- eta hausnarketa-gunea, haren jarraipena eta emaitza nagusiak aztertzeak, eta hura hedatzeko ematen diren urratsak alderatzekoak, eta ekarpenak, hobekuntza-alderdiak, gomendioak, eta abar alderatzekoak, batez ere gizarte-adostasunari lotutakoak. | Planaren hedapena eta monitorizazioa burutzeko balioko duen espazio erkidea, ekarpenak, hobekuntza-alderdiak, gomendioak eta abar jasotzeko, batez ere alderdi-teknikoei lotutakoak.  |
| <b>BILEREN MAIZTASUNA</b> | Hiru hilean behingo jarraipena.  | Sei hilean behingo jarraipena.  | Urtean behingo jarraipena, antzemandako behar jakinen arabera lan-talde espezifikokoak sortzeko aukerarekin, bai eta banakako bilerak Foroan parte hartzen duten eragileekin. Erakundeen arteko koordinazioari dagokionez, hurrengo Euskal Enplegu Sistemaren Legea indarrean sartu arte, erakundeen arteko akordioak adostu ahalko dira, hitzarmen espezifikoekin batera, administrazioen arteko lankidetzaren bidez ekimenen inpaktua areagotze aldera, enplegua sortzeko, enplegua mantentzeko, enpleguaren kalitatea sustatzeko eta euskal herritarren enplegarritasuna areagotzeko, bereziki Foru Aldundien eta euskal Udalen arteko lankidetzari esker. |



2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren ekintzen erantzule diren Eusko Jaurlaritzako Sailak eta Zuzendaritzak

| SAILAK  | MENDEKO ZUZENDARITZAK ETA ERAKUNDEAK                       |
|---|--|
| Lana eta justizia                               | Lana eta Gizarte Segurantza                                |
|   | Gizarte Ekonomia   |
|   | Osalan   |
| Enplegua eta Gizarte Politikak                  | Gazteria   |
|   | Enplegua eta Inklusioa                                     |
|   | Familia  |
|   | Lanbide-Lan Aktibazioa                                     |
|   | Lanbide-Prestakuntza                                       |
| Hezkuntza                                       | Prestakuntza eta Ikaskuntza                                |
|   | Unibertsitateak  |
|   | Baliabide Materialak eta Azpiegiturak                      |
| Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak             | Garapen Industriala  |
|   | Landa eta Kostalde Eremuen Garapena eta Europako Politikak |
|   | Kalitatea eta Elikagaien Industriak                        |
|   | Ekintzaitza, Berrikuntza eta Informazio Gizartea           |
|   | Nazioartekotzea  |
|   | SPRI   |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa            | Merkataritza   |
|   | Turismoa   |
| Gobernantza Publikoa eta Autogobernua           | Funtzio Publikoa   |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza | Etxebizitza  |
| Ogasuna eta Ekonomia                            | Finantza Politika eta Erakundeen Baliabideak               |
| Osasuna   | Osakidetza Ekonomia-Finantzak                              |



## Kontuak ematea

Kontuak ematea halaberrez izango da Planaren gobernantzaren alderdi nagusietako bat. Horretarako, honako jarduera-printzipioak xedatu dira:

- Urtero, Planaren jarraipen-txostena burutuko da. Txosten hori eskuragarri egongo da ekitaldi bakoitzaren ondorengo lehenengo hiruhilekoan zehar.
- Era berean, Planaren amaierako ebaluazio-txostena burutuko da. Txosten hori eskuragarri egongo da 2021/04/30a baino lehen.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak landuko ditu txostenak eta publikoak izango dira, Gobernuak nahikoa hedapen dutela bermatu beharko duelarik [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunearen bidez.

Aipatu beharrekoa da Planaren jarraipen- eta ebaluazio-dinamikek hurrengo izaera operatiboko alderdiak kontuan hartuko dituztela:

- Planean aurreikusitako ekintza bakoitzaren sail erantzulea identifikatuko da, dagozkien jarraipenetan beharrezko informazioa eskatu eta jasotzeko xedearekin.
- Planari lotutako ekintza ezberdinen genero-inpaktua analizatuko da, garatutako ekintzen aurrekontuen dimentsioaren ex post ebaluazioa jasoz genero ikuspuntutik eta programetan egon daitezkeen genero bereizgarriak hausnartuz.
- Aurrekontuen exekuzioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren berezko baliabideen zein beste agenteengandik lortutako edota mobilizatutako baliabideen kuantifikazioa jasoko da.



# Segimendu eta ebaluazio adierazleak

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak barne du etengabeko jarraipen- eta monitorizazio-sistema bat, helburuen eta aurreikusitako emaitzen bilakaera eta urte horietan zehar lortutako lorpen nagusiak ezagutu ahal izateko xedearekin.

Sistema hori kudeatzeko, jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistema bat zehaztu da Planaren betetze-maila aztertu eta monitorizatu ahal izateko. Segimendu- eta ebaluazio-adierazleen sistemak 3 motatako adierazleak erabiltzen ditu:

- TESTUINGURU-adierazleak. Euskadiko enpleguaren inguruko aldagai nagusien bilakaera aztertzea ahalbidetzen duten testuinguru-adierazle orokorrak. Adierazle hauek informazio-iturri ofizialetatik eratorritako datuekin kuantifikatuko dira.
- JARDUERA-adierazleak. Planari lotutako ekimenen exekuzioa monitorizatzeko balioko duten adierazleak.
- INPAKTU-adierazleak. Ekimen horien inpaktua neurtzeko adierazleak.

Adierazle-sistema hau honako irizpideen arabera planteatu da: adierazgarritasuna, neurketa burutzeko beharrezkoa den informazioa lortzeko gaitasuna eta Planaren aldizkako jarraipena eta amaierako balantze orokorra burutzeko balioa edo interesa duten ekarpenak izatea.

Orokorrean, adierazleen neurketa-maiztasuna urtebetekoa izango da, Urteko Jarraipen Txostenarekin bat etorriz. Kuantifikazioari dagokionez, modu desagregatuan burutuko da sexuaren arabera adierazleen pertsoneri erreferentzia egiten dieten kasuetan.

Testuinguru-adierazleentzat hasierako erreferentzia-balio bakarra zehazten da, zeina alderatzeko abiapuntu gisa erabiliko den proiektua garatzen den bitartean haren eboluzioa aztertzeko.





## TESTUINGURU ADIERAZLE OROKORRAK

| ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK                  | ABIAPUNTUKO EGOERA | DATA ETA ITURRIA  |
|--|--------------------|---|
| BPGd-aren urteko hazkundea (%)                 | %3,1               | 2015-2016 urtetik urterakoa. Eustat.                            |
| Enpresa-ezarpenen saldo garbia (altak - bajak) | -710               | 2015-2016 urtetik urterakoa (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat. |
| Sortutako enpresa-ezarpenen kopurua            | 16.045             | 2016 (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat.                        |
| Esportazioen urteko bolumena (milioi eurotan)  | 21.596             | 2016. Eustat.   |
| I+G gastua BPGd-arekin alderatuta (%)          | %1,84              | 2015. Eustat.   |

| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK  | ABIAPUNTUKO EGOERA | DATA ETA ITURRIA   |
|--|--------------------|--|
| Biztanleria aktiboa (milaka pertsonatan, PRA)  | 1.032,3            | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.                                     |
| Jarduera-tasa 16 urte edo gehiago (% , PRA)  | %56,4              | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.                                     |
| Lanean ari diren pertsonak (milaka, PRA)   | 902,8              | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.                                     |
| Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak (milaka pertsonatan, hilabeteko batez bestekoa) | 925,3              | 2016ko abendua (hilabeteko batez bestekoa). Gizarte Segurantzaren. |
| Enplegu-tasa 16 - 64 urte (% , PRA)  | %65,9              | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.                                     |
| Langabezia duden pertsonak (milaka pertsonatan, PRA)   | 130,1              | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.                                     |
| Langabezia-tasa (% , PRA)  | %12,6              | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.                                     |
| Erregistratutako langabezia (milaka pertsonatan, Lanbide)                                    | 136,2              | 2016ko abendua. Lanbide.   |



| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK  | ABIAPUNTUKO EGOERA | DATA ETA ITURRIA                           |
|--|--------------------|--|
| Enplegu-erregulazioko espedienteak izan dituzten pertsonen kopurua (guztira)   | 6.283              | 2016 urteko datu metatuak. Lan Saila.      |
| Enplegu-erregulazioko espedienteen ondoriozko hutsaltzeak izan dituzten pertsonen kopurua (guztira)  | 638                | 2016 urteko datu metatuak. Lan Saila.      |
| Baimendutako eta/edo komunikatutako enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua (guztira)   | 446                | 2016 urteko datu metatuak. Lan Saila.      |
| Emakumeen jarduera-tasaren diferentziala gizonenarekin alderatuta (p.p, PRA)   | -9,50              | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.             |
| Emakumeen langabezia-tasaren diferentziala gizonenarekin alderatuta (p.p, PRA)   | 0,01               | 2016ko IV. hiruhilekoa Eustat.             |
| Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka)  | 34,6               | 2016ko abendua. Lanbide.                   |
| Luzaroko langabeak (25 urtetik gorakoak langabezia urtebete edo gehiago daramatenak eta 25 urtetik beherakoak langabezian 6 hilabete edo gehiago daramatzatenak) Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emandakoak (milaka) | 72,5               | 2016ko abendua. Lanbide.                   |
| Aldi baterako kontratazio-tasa (% , EPA)   | %23,4              | 2016ko IV. hiruhilekoa INE.                |
| Lanaldi partzialeko kontratazio-tasa (% , EPA)   | %17,7              | 2016ko IV. hiruhilekoa INE.                |
| Lanaldian baja dakarten laneko istripuen intzidentzia-tasa (milakoa)   | 3                  | 2016ko abendua (hileroko indizea). Osalan. |



## JARDUERA ETA INPAKTU ADIERAZLEAK

| ESPARRU ERAGILEA   | JARDUERA-ADIERAZLEAK   | INPAKTU-ADIERAZLEAK  |
|--|--|--|
| <b>ETEak,<br/>GIZARTE EKONOMIA ETA<br/>TOKIKO GARAPENA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntzak jaso dituzten ETE eta enpresen kopurua</li> <li>Gizarte ekonomiarako, landa-ekonomiaren dibertsifikaziorako eta eremu behartsuetan enplegua sortzeko lagundutako ekimen berrien kopurua</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntzak jaso dituzten ETE eta enpresetan mantendutako enpleguen kopurua</li> <li>Gizarte ekonomiarako, landa-ekonomiaren dibertsifikaziorako eta eremu behartsuetan enplegua sortzeko lagundutako ekimen berriei esker sortutako lanpostuen kopurua</li> </ul>    |
| <b>EKINTZAILETZA SUSTATZEA</b>                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lagundutako enpresa-proiektu berritzaileen eta/edo oinarri teknologikoa duten proiektuen kopurua</li> <li>Lagundutako mikroenpresa eta autonomo berrien proiektuen kopurua</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Sortutako enpresa berritzaile berrien kopurua</li> <li>Enpresa berritzaile berrietan sortutako lanpostuen kopurua</li> <li>Sortutako mikroenpresa eta autonomo berrien kopurua</li> <li>Mikroenpresa eta autonomo berrietan sortutako lanpostuen kopurua</li> </ul> |
| <b>GAZTEEN ENPLEGUAREN<br/>SUSTAPENA</b>                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Esperientzia-programetan parte hartu duten gazteen kopurua</li> <li>Kontratazioa sustatzeko programen bidez kontratatutako gazteen kopurua</li> <li>Beren enpresa-proiektua garatzeko laguntza jaso duten gazteen kopurua</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteek sortutako enpresa berrien kopurua</li> <li>Gazteek sortutako enpresa berrietan sortutako lanpostuen kopurua</li> </ul>  |
| <b>ENPLEGURAKO<br/>PRESTAKUNTZA</b>                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Enplegurako prestakuntza-ekintzetan, prestakuntza eta enplegurako ekintza berritzaile integraletan eta kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten langabeen kopurua</li> <li>Enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten langileen kopurua</li> <li>Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez lortu diren gaitasun profesionalak ebaluatzeko prozeduren bidez gaitasuna egiaztatu duten pertsonen kopurua</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratazio konpromisoa duten prestakuntza-ekintzen ondorioz kontratatutako pertsonen kopurua</li> </ul>  |



| ESPARRU ERAGILEA                            | JARDUERA-ADIERAZLEAK  | INPAKTU-ADIERAZLEAK  |
|---|---|--|
| <b>LANERATZEKO PIZGARRIAK</b>               | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan-munduan txertatzeko laguntza-jarduera integraletan parte hartu duten luzaroko langabeen kopurua</li> <li>▪ Kontratazioa sustatzeko programen bidez kontratatutako langabeen kopurua</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan-munduan txertatzeko laguntza-jarduera integraletan parte hartu duten pertsonen ehunekoa (%)</li> </ul>                |
| <b>RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK</b>           | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Etxebizitzen errehabilitazio babestuan eta hezkuntza-eta osasun-zentro publikoen errehabilitazioan burututako inbertsio publiko eta pribatua (€)</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Etxebizitzen eta ekipamendu publikoen errehabilitaziorako laguntza publikoekin lotutako lanpostuen kopurua</li> </ul>     |
| <b>ENPLEGU PUBLIKOA</b>                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskal administrazio publikoaren Lan Eskaintza Publikoetan eskainitako lanpostuen kopurua</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskal administrazio publikoko pertsona erretiratuen lanpostuak betetzeko kontratatatu diren pertsonen kopurua</li> </ul> |
| <b>ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETzea</b>       | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan-zentroetan burututako ikuskaritzen kopurua</li> <li>▪ Berrikusitako lanaldi partzialeko kontratuen kopurua</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Berrikusitako lanaldi partzialeko kontratuekin alderatuta, bilakatutako kontratuen ehunekoa (%)</li> </ul>                |
| <b>EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBEKUNTZA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lanbidek ezarritako arreta-eredu berriaren onuradun izan diren langabeen kopurua</li> <li>▪ Lanbideren zerbitzuak jaso dituzten enpresen kopurua</li> </ul>  |  |

